

«Bizkerreko andreek lorategietan ere entrenatzen zuten hasieran»



IÑIGO JUARISTI
Euskal futbol selekzioko
hautatzailea

hiruka

114. zenbakia

2018ko otsailaren 1etik otsailaren 7ra arte



Zimurrak larrutik ordaintzen dira

Diskriminazio bikoitza sufritzen dute adineko emakumeek. Alde batetik, zaharrak izateagatik; bestetik, andreak izateagatik. Adinkeria sexistaz berba egin digu Isabel de Blas adituak

ERANDIOKO HAPO-A | 4

CABLES Y ALAMBRES ENPRESA KOLOKAN

Martxoaren 16ra bitartean hiri-antolamendurako plana aurkeztuko du Udalak, auzokideen ekarpenak batzeko.

SOPELA · URDULIZ | 7

GURASOENGAN EUSKARA SUSTATZEKO ERRONKA

Euskera gelatik kanpo ere erabiltzeko eta kalean indartzeko egitasmoa martxan ipiniko dute hainbat ikastetxetan.

AURRE-MATRIKULAZIO SASOIA | 9



HEZKUNTZA GEHIGARRIA

Erdiko orrietan, eskualdeko ikastetxeen eskaintzak.

KOSTALDEKO GOTORLEKUAK | 18

ITSASERTZA KANOIZ JOSITA ZEGOENEOA

Abra eta kostaldea kortsarioez, ingelesez eta frankistez babesteko, 14 forte eta defentsalero eraiki zituzten Uribe Kostan.



Bizitzen Fundazioak 18 urte daroatza adinekoakaz beharrean. Leioako Udalaren laguntzaz, berb

«Emakume zahar denek jasaten dute bereizkeria»

TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA ARGAZKIA: ANBOTO.ORG ►

Diskriminazio bikoitza sufritzen dute adineko emakumeek: alde batetik, urteengatik; eta bestetik, andreak izateagatik. Horri buelta emateko, emakume zaharra izateak dauzkan balio denak nabarmendu eta agerian utzi gura dituzte.

Bizitzen Fundazioko arduraduna den Isabel de Blas Buruagak adierazi duenez, adinkeria sexistaz arduratzen den lehenengo taldeetako bat da Leioan sortutakoa; «Udalagaz, Bizitzen Fundaziokook dinamizatu eta bideratu genuen», azaldu digu. 2017ko otsailean batzen hasi ziren, Kultur Leioan; zortzi saio egin zituzten. Uda ostean, bigarren talde bat mar txan ipini zuten.

Zer da adinkeria? Dena ondo badoa guztiok helduko gara zahar izatera; baina, tamalez, den-denok pairatuko dugu adinkeria: emakumeok eta gizonok. Hau da, ni azal zurikoa naiz; ez naiz inoiz beltza izango. Beraz, zentzu horretan, ez dut arrazakeriarik jasango. Bestalde, zu gizonezkoa zara. Hortaz, zuk ez duzu sufrituko diskriminazioa emakumea izateagatik. Aldiz, zaharra izateagatik bereiziko zaituzte.

Adinkeria denok jasan ahal dugun diskriminazio-eredu bat da. Hala ere, gure gizartean oso modu naturalean txertatuta dago, oharkabean gertatzen da; eta identifikatzea ez da hain erraza. Egunerokotasunean, adinkeria etxe askotan ematen da. Bizitzen Fundazioan adinkeria zelan identifikatu puntutik abiarazten ditugu tailerrak; hortik, zer

adinkeria-mota egon daitezkeen aztertzen dugu; egunean-egunean, asko ematen da diskriminazio-eredu hori. Sarritan «nagusi» hitza erabiltzen dugu urte asko dauzkaten gizonak edo emakumeak izendatzeko; eufemismo bat besterik ez da. Guk «zahar» berba balorean ipini nahi dugu; izan ere, ematen du zaharra izateak gauza negatiboak bakarrik dakartzala.

Emakumeok modu berezian sufritzen duzue adinkeria? Diskriminazio bikoitza baten gainean berbetan gabiltza adinkeria sexistaz ari garenean: batetik, adinagatik egiten den bereizkeriaz ari gara. Baina sexismoa gehitzen zaionean horri, askoz larriagoa izaten da. Kontuan hartu behar dugu adinkeria munduan ematen diren hiru diskriminazio-motetatik ugariena dela, arrazismoaren eta sexismoaren atzetik. Azken horiek biek adinkeriaren ondorioak areagotu egiten dituzte. Horri buelta eman nahi diogu eta emakume zaharra izateak dauzkan balio denak aitortu gura ditugu.

Zenbat emakumek sufritzen dute adinkeria sexistak? Emakume zahar denek jasaten dute adinkeria sexistak; ez dakit zenbat andre zahar dagoen gure inguruan... Hala ere, ziur esan ahal dizut



al di bi antolatatu zituzten eta orduan sortu zen bertoko lantaldea.

kopurua gero eta handiagoa izango dela pertsonen bizi-itxaropena gero eta handiagoa delako; bereziki, emakumeena. Estatistika denek adierazten dute gizartean zahartze-prozesu bat ematen ari dela. Eustat Euskal Estatistika Erakundeak egiten dituen proiektzioetan ere argi ikus daiteke. EAEn, Eustat erakundearen arabera, 2026rako herritarren %25 zaharra izango da.

Zergatik da ezberdina zahartzea emakumezkoa edo gizonezkoa izanda? Aipatu du-dan bezala, adinkeria gizonezkoek ere pairatzen dute; baina, ezberdina da zahartzea gizona izanda edo emakumea izanda. Euskaraz oso argi ikusten da, hitzen erabileran eta zentzuan. Adibidez, emakume zaharrari «atso» deitzen zaio; gizon zaharrari, oster, «agure». Adineko andreak izendatzeko gure hizkuntzak daukan berba hori irain moduan erabiltzen da askotan. «Agure» hitzak, aldiz, jakituriaren edo asko dakien norbaiten zentzua dauka. Sorginekin, beldurrarekin, okerkeriekin edota hizkimizkiekin ere lotzen da maiz «atso» hitza. Horiek denak emakume zaharren estereotipoak dira.

Bestalde, nahiz eta estereotipo horiek egon, emakume zaharren ardurapean zaintza-lan pila bat uzten ditugu: adibidez, lobak jagoten ia behartuta daude askotan. Baina ez bakarrik lobak; seme-alaben bizimodua sostengatzen oso inplikaturik daude: ekonomi-

Adinkeria sexista ulertzeko gakoak

Emakume zaharrari «atso» deitzen zaio.

Berba hori irain moduan erabiltzen da askotan; okerkeriagaz edo txutxu-mutxuakaz lotzen da maiz.

Lobak jagoten ia behartuta daude askotan, eta seme-alaben bizimodua sostengatzen ere bai: ekonomikoki, bazkarirako tupperrak prestatzen, eta abar.

Zaharrak aspergarriak direla, ez daudela motibatuta, tristeak direla eta depresiorako joera daukatela uste dute askok.

Askoren iritzia da zaharra den pertsona ez dela ederra. Ikustea baino ez dago horren gainean dagoen merkatu dena: zimurrik ez izateko kremak, ile zuriak estaltzeko tindagaiak...

Telebista-iragarkietan, txiza gainean egiten duten edo ile zuriengatik kezkatuta dauden andre zaharrak baino ez dira agertzen. Zimurren kontuagaz, zer esanik ez.

koki, bazkarirako tupperrak prestatzen, eta abar. Bitartean, zaharrak aspergarriak direla, ez daudela motibatuta, tristeak direla eta depresiorako joera daukatela uste dute askok. Horrela pentsatuz eta jokatzuz, diskriminatu egiten ditugu.

Emakumeengan garrantzi handia daukate edertasunaren erregelek; izan ere, askoren iritzia da zaharra den pertsona bat ez dela ederra. Ikustea baino ez dago horren gainean dagoen merkatu dena: zimurrik ez edukitze-kok kremak, ile zuriak estaltzeko tindagaiak...

Zer egin daiteke adinkeria sexista identifikatu eta horri aurre egiteko? Honen gainean lan egiten duen elkarterik ez dago; oso pertsona gutxi dago arazo honi irtenbideak bilatu nahian. Orain ipini gara lanean. Hain modu naturalean ikusten du jendeak, horren atzean bereizkeria egon daitekeenik ez baitute sumatzen. Familia barruan ere tutore izatetik zainduak izatera igarotzen dira askotan etxeko zaharrak; batzuetan, hanka-sartze txikiren bat izaten dutelako, seme-alabek euren izenean ipintzen dute emakume edo gizon horien kontu korrantea... «Dagoeneko zuk ez dakizu» esaten diote aitari edo amari. Pertsona horiei min handia egiten ari zaie.

Zer egin dezakegun galdetzen duzu? Erantzuna argia da: zahartzarorako bidean goazenok kontzientzia hartu beharko genuke geure buruari tranpa bat ipintzen ari garela zaharrak horrela tratatuz, diskriminatuz eta bostere-guneetatik kanporatuz; izan ere, gu ere horra iritsiko gara eta gauza bera gertatuko zaigu, ez baldin bagara garaiz konturatzen.

Eta zaharrak izango bagina? Arazo bati irtenbidea emateko edo mahaigaineratzeko, agenda politikoetan lekua hartzeko... Elkar-tzea da garrantzitsua. Bizitzaren Fundazioak tailerrak bideratu baino ez ditu egiten; zaharrak dira elkartu egiten direnak. Bestetik, zaharrek estereotipo horiei denei jarraitzeari uko egin behar diote: ez dago inon ere idatzita urteetan gora egiteagatik, triste egon behar zarenik edo modu jakin batean jokatu behar duzunik; ordura arte izan duten bizimoduarekin jarraitzea da gakoa.

Bestalde, belaunaldi batzuetan atzera egiten badugu, emakumeen bizimodua nahiko antzekoa izaten zen. Orain, orde, bakoitzak eduki duen ibilbide profesionalagatik edo pertsonalagatik, agian, talde oso heterogeneoa osatzen dute andre zaharrek: ez dira berdinak 65, 75, 85 edo 95 urte dauzkaten emakumeak. Gero eta talde heterogeneoagoa dela erakutsi behar dugu, denak zaku berean sartu gabe.

Zelan sortu zen Leioako taldea? Bizitzaren Fundazioak 18 urte daramatza zaharrakaz lanean. Bada, Leioako Udalaren diru-laguntzari esker pare bat hitzaldi egin genituen; bata, zaharren egoitzan, eta bestea, Andreak emakumeen elkartearen lokalean. Eta hortik abiatuta, tailerretan parte hartzera animatu ziren hainbat lagun; 2017ko otsailean hasi ziren eta oraindik ere jarraitzen dute. Udaren ostean, bigarren talde bat martxan ipini zuten. Ateak zabalik dauzkate. ◀

«Telebistan andre zaharrak irrigarri uzten dituzte»

Hedabideetan ere adinkeria sexista igartzen da? Bai, askotan gainera. Tailerretan luze aritu gara horretaz, baita Leioako taldean ere. Azken finean, gure gizartean gailentzen den kultur ereduaren ispilua dira hedabide handiak. Adinkeria sexista oso era bortitzean azaltzen da horietan. Bereiziki, telebistan, edertasun-erregela zehatz batzuk betetzen dituzten emakumeak baino ez dira agertzen; 30 urtetik 40 urtera arte, gutxi gorabehera. Hortik aurrera, desagertu egiten dira andre denak. Urte horietatik aurrerako emakumezkoak *naif* estiloko edo txutxu-mutxuen programetan baino ez daude. Iragarkiei dagokienez, txiza gainean egiten duten edo ile zuriengatik kezkatuta dauden emakume zaharrak besterik ez dira agertzen iragarkietan. Zimurren kontuarekin, zer esanik ez. Bestalde, edertasunarekin zerikusirik ez daukaten iragarkietan, andreak irrigarri uzten dituzte beti. Horren adibidetzat har dezakegu «fabadaren amonak» parte hartzen duen *spot*-a.

Hori aldatzeko zer egin daiteke? Lan egin dugu herrietan ekimenak sortu dira. Berbarako, Durangon, batzen jarraituko dute eta, zuzenean, hedabideetan ematen den emakume zaharren irudia salatzeari ekingo diote. Guk ez daukagu ur miraritsurik horren aurka egiteko; horretatik ihes egiten dugu. Bizitzaren Fundazioak taldeak sortzen baino ez du laguntzen; gero euren erabakitzen dute nora jo nahi duten. Hala ere, salaketa-lan hori ondo ikusten dugu. Bestalde, estereotipoetatik kanpo dauden beste eredu batzuk badaudela erakustea planteatzen dugu.

Adinkeria sexista sailhesteko ze arau jarraitu beharko lukete hedabideek? Horrela, bat-batean, ez da gauza erraza, baina adibideren batzuk jartzearen... Hedabideek honako premisa hauek jarraitu beharko lituzkete: emakume zahar denak ez dira amamak; emakume zaharrak gure etorkizuna dira; emakume zaharrak ez dira aspergarriak; emakume zaharrek sormenerako ideia asko dauzkate; emakume zaharrak ere ederrak dira; emakume zaharrek tupperrak egiteko baino askoz gehiagorako balio dute; emakume zaharrek zer egin nahi duten erabakitze gaitasuna daukate... Askoz gehiago egon daitezke.

ERANDIO | Hirigintza

Etorkizuneko Erandio ipiniko dute eztabaidan herritarrek

Erandioko Udala aurkezten dabil Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (HAPO) aurrerapena, jendaurrean. Txostena ez da behin betiko onartuko legealdi honetan. 25 urte pasa dira azken plana egin zenetik.

Erandioztarrek datozen urteotarako gura duten herria erabaki ahal izango dute, prozesu publiko baten bidez. Udalak HAPOren aurrerapenean proposatutako hiru alternatiben arabera, etxebizitza-kopurua sano handituko litzateke udalerrian: gutxienez 2.325 lirateke etxebizitza berriak. Aurreko HAPOa 1995ean onartu zenetik oraingo proiektua idazten hasi zen arte, 2.372 etxebizitzarako lizentzia eman zituen Udalak. HAPOen iraupen optimoa zortzi urtekoa bada ere, Erandioko Udalak hamasei eta hogeitaz bitarteko indarraldia izatea aurreikusi du. Dena den, hurrengo HAPOa onartu arte iraungo luke.

Joseba Goikouria alkateak azaldu duenez, txostena osatzeko «lan handia egin da». Izan ere, Udalak hiru urte daramatza «diagnostikoa» osatzen, Egoitz Bilbao Hirigintza zinegotziaren arabera. Kontuan hartu dituzte errepideak, trenak, kutsatutako lurrak, unibertsitatea, urak har ditzakeen lurrak, industria-zorua, bestelako jarduerak ekonomikoak, gune berdeak, etxebizitzak eta abar. Bilbaok gogorarazi duenez, aurretik HAPO berri bat diseinatzeko saiakera bat egin zen 1997an, baina bertan behera geratu zen. Aurreko HAPOa, 1993koa, «oso bilbotarra» dela uste du zinegotziak, desanexioaren aurretiko ondatsunari erreferentzia eginez.

Udalerri-mailan, itsasadarreko errepideak bateratuko litzuzke bidegorria eta bulebarra izateko asmoak. Auzoz auzo, planak aurreikusi du «Goierriko birika mantentzea», Bilbaoren berbetan. Lutxanan geltoki intermodal bat sortuko litzateke, trena, metroa eta autobusa han bateratuz, disuasio-parking bategaz batera. Astrabuduan, udal-apustua izango da saihasbidearen ondoko gunea etxebizitzaz ixtea. Gainera, aparkatzeko «arazo endemikorako» balizko konponbide bat aurreikusi dute: 600 autorako parking publikoa.

CABLES Y ALAMBRES KINKA LARRIAN. Altagaren kasuan, asmoa da «itsasadarrari begira» haztea. Horretarako, Cables y Alambres enpresa historikoa bertatik alde egitea aurreikusten du dokumentuak, «auzoaren hazkunde mugatzen duelako». Bilbaok gogorarazi duenez, arazoa ez da berria: «Orain dela 100 urteko agirietan jasotzen zen hirigintza-traba hori». Ingurua bizitegi-gune legez birkalifikatuko litzateke, «Altagak eremu hori hazteko behar duelako» eta enpresak beste alde batera aldatu ahal izateko pizgarri bat izan dezan. Dena den, enpresa ez litzateke behartuta egongo alde egitera, «tolerantzia-dekretua» egingo bailitzateke, bere kabuz joan arte. Zinegotziak gogorarazi duenez, Plaiaabarriko industrialdean lekua dago enpresak gura badu bertan birkokatzeke.

Herritarrek ekarpenak egin ahal izango dituzte, martxoaren 13ra arte. Bitartean, otsailaren 9ra arte erakusketa bisitatu daiteke Altagan, udaletxeko beheko solairuan. Hurrengo erakusketa Astrabuduan egingo dute, Josu Murueta kultur etxean, otsailaren 12tik martxoaren 2ra. Otsailaren 13an, 19:00etan, teknikariek berbaldia eskainiko dute plana azaltzeko. Azken erakustaldia Erandiogoikoko Gizarte Etxera helduko da, mar-



Cables y Alambres enpresaren etorkizuna baldintza dezake HAPO berriak.

3.212

etxebizitza berri aurreikusi ditu HAPOren aurrerapenak, gehienez jota. Gutxienez, 2.325 egingo lirateke, Udalak proposatutako hiru alternatibetako bat onartuz gero.

2.372

etxebizitzarako lizentzia eman zituen Udalak, 1995etik 2013ra.

400

etxebizitza aurreikusi dituzte Tartangan, Abaroa enpresak kaltetutakoei konponbidea emateko proiektuan.

txoaren 5a eta 16a bitartean. Han, berbaldia martxoaren 6an izango da, 19:00etan. Foro horietara hurbiltzerik ez daukanak edo bestelako zalantzaren bat argitu gura duenak, martitzenean eta eguenetan aukera izango du planaren aurrerapena idatzi duen lantaldeagaz berba egiteko, udaletxeko beheko solairuan, 16:00-20:00 ordutegian. Ganemos Erandio udal-taldeak aurkezpenen prozesua amaitu arte itxarongo du, herritarren ekarpenak kontuan hartzen diren ikusi eta HAPOren aurrerapena baloratzeke. Hala, Udal Gobernuak «muzin eginez gero», auzotarren kexetan «indarra» egingo lukete, Javi Bilbao herri-plataformako kideak azaldu duenez. Halere, aurreratu du «adreiluaren aurkako ekarpenak» ere egingo dituztela.

EH Bilduk, ostera, eskaera egin dio Udal Gobernuari: HAPOa emakumeen elkartekaz lantzeko, Altagan egindako berbaldian, 40 pertsonetatik sei baino ez zirelako andrazkoak izan, eta horietako gehienak, zinegotziak. Hala, Ana Crespo hautesiak «genero-ikuspegia» erabiltzeko eskatu du. Horretarako diru-laguntza berezia lortu dutela erantzun dio Udal Gobernuak. Horrez gain, beste hiru kezka dauzka EH Bilduk. Euren ustean, «ez dago orekarik etxebizitzaren eta aurreikusitako zerbitzu eta gune berdeen artean, proposatutako etxebizitzak gehiegi dira; gainera, kezkatzen gaitu Tartangan 400 etxebizitzako proiektua mantentzeak». Azkenik, arduratuta daude Cables y Alambres dela eta. Uste dute lekuz aldatzea inbertsio handia litzatekeela eta enpresak ixteko apustua egin dezakeela. ◀

GETXO | Robotikan trebatzeko, *First Lego League*

«Gure erronka da gure gaitasunak handitzea»



Hamar urteko hamar mutilek osatzen dute taldea; hala ere, daborduko hainbat neskak interesa agertu dute horretan parte hartzeko.

Getxoko Azkorri ikastetxeko *Azkobot* izeneko taldeak *First Lego League*-en (FLL) parte hartuko du aurten, lehenengo aldiz. Nazioarteko lehiaketa horrek kirol-lehiaketa itxura duen arren, gazteen artean zientzien eta teknologien gaineko interesa piztea du helburu. Izan ere, berrikuntza, sormena eta talde-lana dira oinarriak.

Aurten uraren zikloari buruz hausnartu beharko dute gazteek, horren kudeaketa ahalik eta eraginkorrena zein izan beharko litzaitekeen ondorioztatzeko, besteak beste. Horretarako, Azkorriko ikasleek Xabier Coto Peña algortarraren laguntza izango dute, hura baita ikastetxean Robotika eskolaz kanpokoa ematen duen arduraduna. «Ni ez naiz irakaslea, gidaria baizik. Ikasleek entrenatzaile deitzen didate eta nik aurkikuntza-lanetan laguntzen diet», azaldu du Coto.

Lehiaketa otsailaren 10ean izango da, Gasteizko Europa Jauregian. Atzerako kontaketa hasi da, eta beharrei erantzuteko aparteko eskolak eman behar izan dituztela aitortzen du Coto, «beste hainbat ikastetxetan Robotika linea kurrikularrean dago; hemen, ordea, ez,



«Misioen estrategia bat garatzen ari gara, robotek sor daitezkeen oztopoak gainditzeko»

XABIER COTO PEÑA
ROBOTIKA IRAKASLEA

eta ordu faltak nabariak dira». Hala, datozen aste bietan lanez gainezka egongo da *Azkobot* taldea; dena dela, horrek ez die arduratzen, «aurreko urte bietan ere Robotika landu dugunez, umeek burua horretan daukate. Dinamikak ulertzen dituzte eta oso intuitiboki egiten dute lan, gogotsu gainera». Taldea hamar urteko hamar mutilek osatzen dute; hala ere, hainbat neskak interesa agertu dute laster eskola horietan parte hartzeko.

Txapelketa hiru ataletan banatuta dago. Hasteko, uraren zikloari lotutako zientzia-proiektu berritzaile bat sortu behar izan dute. Ondoren, Legoren *Mindstorm* piezak erabilita, robot berezi bat sortu dute, erronkaren gaineko 17 misiori aurre egiteko. Azkenik, prozesu osoan erakutsitako balioak laburbiltzen dituen txosten bat egin behar izan dute. Lehiaketaren egunean, prototipoa erabiliz, 17 desafioak gainditu beharko dituzte, bi minutu eta erdian. Coto dio «horretarako misioen estrategia» bat lantzen ari direla egunotan, «kontuan izan behar dugu misio bakoitzak zer egiten duen, piezak mugitzen direlako eta horiek hurrengorako oztopoak izan daitezkeelako». ◀

Pentsalekutik



MAITANE
NEREKAN UMARAN
Ezertan aditua,
askotan aritua

Barri ez da hobeto

Esku artean edo pantaila aurrean duzun komunikabide hau berritu egin da. Diseinua, edukiak, lantaldea... Zorionekoak gu opari berria egin digutelako. Zorionekoak?

Banago, oraindik testu liburuetan agertzen ez den ideologia politiko baten atarian gaudela: *Berritismoa*. Sistema honek jarraitzaile asko ditu, kontzientek ez badira ere. *Berritismoaren* oinarri ideologikoa hau da: berria den dena ona da bere horretan, berria izate hutsagatik. Kapitalismoaren estrategia den ideologia hori munduko bazter denetan hedatu da. Beste askoren artean, nire herriko agintariak, beren oinarri ideologiko historikoak (baten batek gogoratzen du zeintzuk diren?) alde batera utzi eta muturreko *berritismoa* batu dira. Ikustea besterik ez dago Antzokia edo Kultur Etxearekin egin dutena edo Romako Nagusien Etxearekin egin nahi dutena (eutsi tinko erromotarrak!). Eraikin berriak egiteagaz itsutzen dira, horrek kalte sozial larriak eragiten baditu ere. Abertzaletasuna ezkerretik ulertzen dugunok ere, *berritismoak* gaixoturik ibili gara azken boladan, kontzeptu berriak asmatzeraino (dekantazio independentista!?).

Berria dena ez da hobe bere horretan. Txikitako ikasgaia da hori. Urtebetetzean praka berria oparian jaso, baina jaietarako zaharra erabiltzen jarraitu urteetan. Auto berria erosi eta errepide erdian geratu handik gutxira. Puntako telefono berria atera eta eztanda egiten duela entzun telebistan. Etxe berrira aldatu eta zaharraren goxotasuna faltan bota.

Horregatik, HIRUKA betikoa eta gehiago delako zorionduko dut. HIRUKA 2.0 uribekostarrok dugun altxorra da; baina ez berritua datorrelako, herri-kohesioan, hurbileko informazioan eta euskararen normalizazioan sinesten dugunontzat ezinbesteko tresna delako baizik.



Ideen sokadantza

GORKA MOSTAJO GALDUROZ
Gizarte-langilea

Dantza tradizionalari lekua murriztuz

Ziur egun hauetan sarean bolo-bolo ibili den bideoa ikusi duzuela: FITUR turismo azokan, Euskadi-Basque Country standean eta Xabi Solanoren biribilketapean hiru dantzari, praka eta jaka zuriz Backstreet Boys antzean jantzita, eta ballet kutsuagaz tente dantzan. Ez naiz gustuaz arituko, hori norberaren baitan baitoa, baina uste dut lekuz kanpo dagoen ikuskizun bat dela horrelako *stand* baterako. Mendeetan eduki ditugun dantza asko ez dira ondo ezagutzen, eta horietako asko (edo gehienak) bideokoa baino ikusgarriagoak dira. Turismo-azoka batean Euskadiren erakargarritasun fisikoa erakutsi gura badugu (mendiak, hondartzak,...) beraren arimak (dantzak, gastronomia, euskara...) bilgarria izan behar duela uste dut. Herri modernoak garesti erakusteaz aparte, gure herrialdea desberdindu behar dugu, gure berezitasunak erakutsiz eta dantza tradizionalarekin identifikatuz; ez musikan edo urratsetan soilik, baita gorputzaren jarreran, keinuetan, jantzietan... ere. Norbaitek esango dit gastronomia ez dagoela eztabaidarik, Michelin izardun sukaldari modernoak ere egoten direla horrelako azoketan, bai; baina euren jantziak berariaz, helmuga turistikoak direlako munduan; horrelako dantza modernoak, ez. Koreografia horri urrunetik begira ari zaion batek ez du gure Herria identifikatzen. Zuberoako maskaradetako urrats bat Galiziako muñeiren urrats batez aldatu eta Galiziako *stand*-ean ere lekua edukiko luke. Eta Galizian badakite Backstreet Boysez jantzen, baina ez dut uste identifikatuta sentituko liratekeenik. Gure dantza tradizionalak ikusgarriagoak badira eta gure izaera hobeto adierazten badute, zergatik tematzen dira gure instituzioak halako koreografiak kontratatzen?

LEIOA | Gaztelueta auzia

Zigorraldirik handiena

Ikastetxeko irakaslea zenari salaketa ipinitako Gaztelueta ikasle ohiaren abokatuak martitzenean, urtarrilaren 30ean, aurkeztu zuen egitateen kalifikazio-txostena. Ustez, gazteari sexu-abusuak egin zizkion maisuak, mutilak 12 urte zituela, 2008-2009 eta 2009-2010 ikasturteetan. Hori dela eta, delitu horrengatik eska daitekeen kartzela-zigorrik handiena eskatu du Leticia de La Hoz letratuak: hamar urte. Fiskaltzak hiru urteko espetxealdia baino ez zuen eskatu akusatuarentzat, eta horrek erabat sumindu zituen gaztearen gurasoak: «Hiru urteko kartzela-zigorra ez da nahikoa gure semeak sufritzen eman dituen hamar urteak arintzeko». Bitartean, akusatuaren abokatuak den Eduardo Ruiz de Erenchunek «gezurtzat» jo zituen bere bezeroari leporatzen zaizkionak: «Fiskaltzaren eskaera errespetatzen dut, baina oker dago».

Leticia de La Hoz abokatuak «jarraikako sexu-abusu delitua» ere gaineratu du kalifikazio-txostenean; horregatik, lau urte eta erdiko espetxe-zigorra ipiniko liokete Opos Deiko ikastetxeko irakaslea zenari. Hala ere, urte horiek ez litzaizkioke gehituko «sexu-a-



Laster erabakiko dute «Gaztelueta auzi»-ko epaiketa noiz egingo duten.

Sexu-abusuengatik gehienez 10 urteko espetxealdia eska daiteke akusatuarentzat

busuen delituagatik» zehaztutako kondenari. Fiskaltzak eta akusazioak kalifikazio-txostena aurkeztu eta gero, Ruiz de Erenchun akusatuaren abokatuak idatzia aurkezteko zain daude; horren ostean erabakiko dute epaiketa noiz egingo duten. ◀

ESKUALDEA | Ur-horniketa

Zortzi kilometro hodi

Uribe Kostako eta Mungialdeko udalerrietako ur-edangarriaren horniketa hobetzeko, asmo handiko proiektu bati ekingo dio urtearen erdialdean Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak. Denera, 11,5 milioi euroko (BEZA barik) aurrekontua daukaten lanak abiaraziko ditu erakundeak. Obrak zati bitan egingo dituzte eta 80.000 biztanleri mesede egingo die; horien artean, Barrikako, Urdulizko, Plentziako, Gorlizko eta Lemoizko bizilagunei. Uribe Kosta eskualdera ura ekartzen duen hodia Mungialdera doanagaz lotzeko balioko du egitasmoak. Horretarako, Sopela eta Mungia batuko ditu tutu berri batek, Gatikatik igaroz. Daborduko 2014an egin zuten Sopela eta Butroe arteko zatia; bost milioi euroko kostuagaz. Orain, zortzi kilometroko hodia ipiniz luzatuko dute orduan egindako zatia, Mungia Zabalondo poligonora heltzeko.

Lanen lehenengo zatia bost kilometroko tutua ipintzea izango da, Butroetik Mungiarako bidean dagoen ur-biltegiagaz lotzeko. Fase hori urteko bigarren hiruhilekoan abiaraziko dute, eta zazpi milioi euro baino gehiagoko aurrekontua dauka. Obra horiek amaitzeko epeari dagokionez, urtebete eta lau hilabete-ko iraupena izatea aurreikusi dute. Bestalde,

Sopela eta Mungia batuko ditu ur-hornidurarako tutu berri batek, Gatikatik igaroz

proiektuaren bigarren fasea urteko hirugarren hiruhilekoan hasiko dute eta 2020 baino lehen egon beharko du amaituta. Lan horien barruan, hiru kilometroko hodia ipiniko dute Butroe eta Mungia artean dagoen ur-biltegia Zabalondoko poligonoagaz lotzeko. Egitasmoaren bigarren zati horrek 4,5 milioi euroko aurrekontua izango du.

ASPADIKO ARAZOA KONPONTZEN. Eskualdea hornitzen duen hodi nagusia Arrigorriagako Goiko Bentatik ateratzen da; zehazkiago, edateko ura tratatzeko plantatik. Artxandatik igaro ostean, Leioako Kurkudi inguruko biltegiara heltzen da. Handik abiatzen da Gorlizera-ko tutua. Hala ere, aipatutako udalerri denek «ez daukate guztiz» ziurtatuta ur-edangarriaren horniketa, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kudeatzailea den Pedro Barreirok aitortu duenez. Beraren berbetan, «larrialdiren bat egotekotan edo konponketa-lanen bat egin behar izatekotan, gertuko erregulazio-biltegien menpe egon ohi dira. Horiek 24 ordu baino gutxiagorako ura berma dezakete. Beraz, egun bat baino gehiago irauten duen matxura bat egotekotan, ur barik gera daitezke udalerri horietako biztanleak». Arazo hori konponduko ei dute laster abiaraziko dituzten lanakaz. ◀

SOPELA · URDULIZ | Euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa

Gurasoak ere euskaraz

«Gurasoen erronka» martxan ipiniko dute Sopelako eta Urdulizko hainbat ikastetxetan. Horren helburua da euskararen erabilera gelatik ateratzea eta kalean areagotzea. Sopelan otsailaren 5ean hasiko dira.

Euskara ikasgeletatik kalera ateratzeko egitasmoa martxan ipiniko dute laster Sopelan eta Urdulizen. Arduradunek azaldu dutenez, asmoa da udalerrri bi horietako ikastetxeetako gurasoen artean euskararen erabilera sustatzea. Modu horretan, ikasleek ikusi ahal izango dute hizkuntza hori ez dela soilik eskolarako, eta kalean ere erabil daitekeela. Horretarako, neska-mutil horien aitek eta amek hilabetez hizkuntza horretan aritzeko konpromisoa hartu beharoko dute.

Sopela da lehena programa martxan ipintzen, eta otsailaren 5ean, astelehenean, abiaraziko dute, «Baga Biga Higa, euskarak sorginduko gaitu bihotzetik ezpainetara» izenpean. Ander Deuna ikastolak eta Zipiriñeko Gurasoen Elkartek abiarazi dute proiektua, Ebe-te aholkularitza-enpresagaz, Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuagaz eta Sopelako Udalagaz elkarlanean.

Arduradunek azaldu dutenez, ikastetxe bi horietako gurasoak hainbat taldetan antolatuko dira, astez aste. Talde bakoitza partaideen euskara-mailaren arabera osatuko da; modu horretan, talde horietako aitek eta amek eurei egokitutako konpromisoak hartu ahal izango dituzte. Partaideek txapa identifikagarri bana izango dute, eta konpromisoa hartutako aste horretan, beste horrenbeste guraso erronkara batzea lortu beharoko dute hurrengo asterako. Ondoren, egitaspora atxikitako azken horiek hurrengorako bes-



Zipiriñe eta Ander Deuna ikastetxeak izango dira erronka hartzen lehenengoak.

«Ideia da ikasleek ikustea euskara ez dela soilik eskolarako, eta kalean ere erabili daitekeela»

te hainbat lortu beharko dituzte, eta horrela hilabete batez. Ideia da bakoitzak ahal duen moduan moldatzea euskaraz. Hau da, euskaldunak direnek euskara hutsean berba egitea euren artean; euskara dakitenak baina oso trebeak ez direnak, ordean, horretan saiatzea; eta asko ez dakitenei, aldiz, euskarazko esamolde ohikoak erabiltzea eskatuko zaie, hala nola agurrak.

Antolatzaileek aurreikusi dutenaren arabera, astero 60 gurasok parte hartuko dute Sopelan martxan ipiniko duten erronkan, eskola bakoitzean.

ELORTZA ESKOLAN ERE BAI. Urdulizen kasuan, egitasmoa otsailaren akabuan martxan ipintzea aurreikusi dute arduradunek. Kasu horretan Elortza eskolan izango da, eta gurasoen elkarteko kideen laguntza egongo da erronka abiarazteko. ◀

PLENTZIA | Kultur agenda

Urteko ekitaldiak osatzeko bilera

2018an hiribilduan egingo diren kultur ekitaldien nondik norakoak prestatzen hasteko eta antolakuntza lanetan laguntzeko bilera irekia deitu dute barikurako, hilaren 2rako. Hitzordua arrastiko 7etan ipini dute, Goñi Portalen. Bileraren helburua izango da udalerriko ahalik eta herritar gehien iritziak jasotzea, eta denen artean denboraldi berriko Kultur Agenda osatzea.

Udalak Plentzia Kulturaz egitasmoa ipini zuen martxan joan den urtean, «jendea kulturaz blai busti eta herrian kulturaz hitz egiteko», arduradunek orduko hartan azaldu zuten. Herritarren inplikazioa «beharrezkoa» zela argi zuten antolatzaileek, eta hurrengo pausoa izan da kultur ekitaldietan interesa dutenei bilera irekira joateko deia.

Plentzia Kulturaz egitasmoak askotariko jarduerak antolatu zituen iaz, hala nola Lanbro Beltza genero beltza lantzen dituen literatura topaketak, Mikro-film Short Festival genero beltzeko film laburren festibala, AgorriJazz jazz musikaren gaineko jaialdia, Arte Kale kalea antzerkiz betetzeko eguna eta Musika Klasikoa Jaialdia udalerriko elizan.

Auzokideen proposamenak batzeaz gain, jaialdietako antolakuntza lanetan jarduteko deialdia ere zabaldu dute.



Plentzia Kulturaz ekimenaren aurkezpena, iaz.

AINGARA



**BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK**

*Agate Deuna bezperan
eta Aratusteetan
jantzi zaitez Aingaran!*

Aurrezki Kutxa, 18
48930 Erromo · GETXO

944 038 953
bordadosaingara.com




MARTA ZELAIA ARANBALTZA | Barriek 2018 proiektuak hautatutako artista

«Ikusleei denbora zelan igarotzen den hausnarrarazi gura nieke»



Marta Zelaia Urdulizen bizi da. Arte Ederrak ikasi zituen, Pintura espezialitatean, Euskal Herriko Unibertsitatean; eta han lizentziatu zen, 1987an.

Martxoaren 18ra arte, Marta Zelaia Aranbaltza (Urduliz, 1962) sortzailearen *Sokatira 2014-2017* erakusketa ikusbide izango da Bilboko Rekalde Aretoan. Urduliztarragaz batera, bost artista gaztek parte hartuko dute Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako Barriek 2018 egitasmoan.

Bigarren aldiz, Barriek proiektuan parte hartuko du Marta Zelaia. Sortzaile urduliztarrak 1987 eta 1988 urteen artean jaso zuen Aldundiaren beka. Hala, aurretik babesa jaso zuen sormen-talentua berreskuratu gura izan dute foru-arduradunek; bide batez, Zelaia gaur egun egiten duen lana ikusi gura izan dute eta aukera eskaini diote lan horiek jendaurrean aurkezteko.

Pozik hartu duzu Barriek programan parte hartzeko Aldundiak eman dizun bigarren aukera? Gaur egun esku artean daukadan lana, *Sokatira 2014-2017* egitasmoa, erakusteko aukera ezin hobea da. Rekalde Aretoak erakusleiko handi bat dirudi, zeinean bere burua sokatik tiraka irudika dezakeen ikusleak.

Artista gazteentzat garrantzitsua da esperientzia handiagoa daukaten sortzaileak elkarlanean jardutea? Bai. Artearen munduan hasten zarenean zalantzak eta segurtasun-eza sortzen zaizkizu askotan. Lagungarria da esperientzia handiagoa daukan sortzailearen bat alboan izatea, aholkuak emateko.

Eta artista berrien eskutik zer ikasten dute esperientzia handiagoa daukatenek? Ikuspuntu berriak erakusten dizkigute hasiberriak direnek, eta horiek irudikatzen moduak ere bai.

Aldundiko bekak ateak zabaltzen zizkizun? Arte Ederretan lizentziatu eta berehala jaso nuen Bizkaiko Foru Aldundiak ematen duen beka. Horri esker, nire lanaren oinarriak zeintzuk izango ziren ondo pen-

«Artearen munduan hasten zarenean zalantzak eta segurtasun-eza sortzen dira askotan. Lagungarria da esperientzia handiagoa daukan sortzailearen bat alboan izatea, aholkuak emateko»

tsatzeko aukera izan nuen. Horrez gainera, sorkuntzari ekiteko konfiantza handia eman zidan foru-erakundeak nigan egindako apustuak. Bestalde, ikastaro askotan parte hartu nuen: Angel Badosek eta Txomin Badiolak Artelekun egindakoak oso baliagarriak suertatu zitzaizkidan. Esperientziak elkartrukatzea aberasgarria da; ildo horri eutsi diot *Sokatira* egitasmoa gauzatzeko.

Beharrezkoak dira Barriek bezalako egitasmoak? Bai, zalantzarik gabe. Sortze-lanean hasiko zarela erabakitzen duzunean zaila izaten da zein norabide jarraituko duzun erabakitzea. Horretan pentsatzeko aukera ematen dizute horrelako bekek.

Administrazio publikoek ahalegin nahikoa egiten dute artista gazteei laguntzeko? BilboArte, Arteleku eta halako guneak behar-beharrezkoak dira sormena sustatzeko.

Zertan ibili zara azken urteetan? Inoiz ez dut artea albo batera utzi. Loregintzan jarri nuen interesa eta paisajismoa lantzen ibili nintzen; nire ogibide bilakatu da.

Ikusleak zer aurkituko du *Sokatira 2014-2017* erakusketan? Puntadaz puntada, azken urteotan egin dudana tapiz handia ipini dut Rekalde Aretoan. Ikusleek denbora zelan igarotzen den hausnartzea gustatuko litzaidake, lan horren bitartez.

Denbora luzea behar izan zenuen tapiza egiteko? Lan-prozesua zein izan behar zuen erabakitzea kostatu zitzaidan gehien. Etxean, gurasoak, egin behar nuela ulertu nuen; eurengandik ikasitako zeozer egin gura nuen. Lan-prozesu osoan ez dut une batean ere ahaztu euren alaba naizela, artista izateaz gain. Aita-amen zaintza eta lana uztartu egin ditut proiektu honetan.

Egitasmo berriak daukazu eskuen artean? Batetik, *Sokatira 2014-2017* erakusketa areto gehiagotan ipini gura nuke. Horrez gainera, pieza berriak egiten nabil, orain arte egindakoez trilogia bat egiteko. ◀

Hezkuntza

hiruka
Gehigarri berezia

114. zenbakia

2018ko otsailaren 1etik otsailaren 7ra arte

Geroa marrazteko, ondo aukeratu

Uribe Kostako gurasoek eta tutoreek eskura daukate ikastetxe-eskaintza zabala, etxeko gazteenek kalitatezko hezkuntzaz goza dezaten.



HAMILTON
Play-School

Ikastolak

Enpresak

ENGLISH
SATURDAY
Play-School

hamilton
IDIOMAS

SOPELAN, Dr. Landa 6.
LARRABASTERRAN, Iberre 9.
946 763 012
info@hamiltonidiomas.com

INGELES
ALEMANIERA
FRANTSESA

Taldeak, enpresak eta partikularrak
Eskolaz kanpoko ekintzak
Maila guztiak
Ingelesa hiru urtetik aurrera
Taldea txikiak
Inglaterran egonaldiak

IRANTZU PETUYÁ · SONIA LABRAGA | Psikomotrizistak

«Jolasa da umeek protagonismoa eskuratzeko erreminta politena»



Psikomotrizitatea lantzeko adinik onena 2 eta 7 urte artean izan ohi da.

Psikomotrizitatea hainbat ikuspegi eta orientaziotatik landu daiteke. Berbarako, Bernard Aucouturier-en praktikaren bitartez, pertsona bere osotasunean ezagut daiteke, horren garapen pertsonalean laguntzeko.

Zergatik da hain garrantzitsua umeakaz psikomotrizitatea lantzea?

Gaur egun inoiz baino garrantzitsuagoa da txikiakaz hori lantzea, hezkuntzan eta gizartearen den-dena bizkorregi doalako. Gainera, irakasleek duten gainkargak ere ez dute ezertan laguntzen. Badirudi umeak ingurura begira daudela uneoro, aginduen zain, zer gura duten pentsatzeko denbora barik, besteak beste. Psikomotrizitateak erritmo hori moteltzea ahalbidetzen du, eurek protagonismoa berres-

«Badirudi umeak aginduen zain daudela uneoro, ingurura begira»

kuratzeko eta behar dutena azaleratzeko. Hori dena lantzeko jolasa da umetasunean existitzen den erremintarik politena.

Zein da hori lantzeko garairik onena? Adinik onena bi urtetik zazpi urtera izan ohi dela esaten da, baina arinagotik ere lantzen has daiteke. Are gehiago, garapenean zailtasunak egon direnean, jaiotzatik nerabetasunera arte landu daiteke hori dena. Zailtasun horiek askotarikoak izan daitezke, berbarako gaixotasunak daudenean, blokeo emozionalak dituztenean eta jaiotza goiztiarren kasuan. Hori dena alor terapeutikoan lantzen da, banakako sesioetan, hezkuntzatik kanpo. Hala ere, egokiena litzateke eskoletan psikomotrizitatean aditua den pertsonaren bat egotea, zailtasun horiek aurkitzen direnean lanean hasteko ahalik eta lasterren.

Zer ondorio izan ditzake psikomotrizitatean defizita izateak? Psikomotrizitateak ez dio arazo zehatz bati aurre egiten bere horretan; horren ordez, pertsonaren osotasunari heltzen dio, bere testuinguruan eta esperientzietan oinarrituta. Modu horretan lan egiten denean, pertsonaren bizi-kalitatea hobetu ohi da, baita bere «arazo psikomotorra» ere.

Zelan landu daiteke hori dena? Segurtasuna eskaintzen duen psikomotrizitate-gela batean lantzen dugu dena; sinbolikoki horrek ekiteko eta pentsatzeko gozamenaren ibilbidea irudikatzen du. Gainera, guk, adituok, ez ditugu inola ere lanera datozen pertsonak epaitzen.

Zeintzuk ekintza egiten dituzte umeek praktika psikomotorretan?

Umeak jolastu egiten dira batez ere. Behar dutenera jolasten dira eta prozesu horretan laguntza jasotzen dute. Gerora, gauza garrantzitsuez berba egiten dute eta emozioak azaleratzen dituzte, besteak beste. Saiotan entzuteko uneak daude, ekintzarakoak, istorioak kontatzekoak eta plastikan aritzekoak ere bai. Ibilbide hori ekintzatik pentsamendura joateko da. Saioa heltze-prozesuaren erreproduzioa da, norberaren garapenaren prozesu naturala.

Zertan ezberdintzen dira hezitzaileak eta psikomotrizistak?

Formazioan, batez ere. Formakuntza horrek umeakaz lan egiteko ikuspegi berezi bat eskaintzen du. Ikasitako eta landutako praktika denei zentzua ematen die formazio horrek, baita bizitzari ere. Non zauden eta zer zailtasun dituzun ez badakizu, zaila gertatuko zaizu neska-mutilek dituzten behar eta nahiei aurre egitea.

ander deuna
ikastola

Gatzarriñe bidea, 47- 48600 SOPELA
946 760 266 · 689 01 04 28

info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus

Ekainaren 24ko 4/1993 Legeak, Euskadiko Kooperatibenak, 33. artikuluan eta Ander Deuna Ikastola Koop. Elkartearen Estatutu Sozialak 25. artikuluan ezartzen dutenaren arabera, Ander Deuna Ikastola Koop. Elkarteak Artezkaritza Kontseiluak, 2018ko urtarrilaren 23an egindako bileran Aparteko Batzar Nagusia* deitza erabaki du.

Aparteko Batzar Nagusirako deia

Data: 2018ko otsailaren 16an
Lekua: Ander Deuna Ikastolako Areto Nagusia

Ordua: 18:30ean lehen deialdian
19:00etan bigarren deialdian.

LAN ZERREDA


1. Aparteko Batzar Nagusiaren hasiera.
2. Aparteko Batzar Nagusiko Akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
3. Bigarren Hezkuntzako eraikin berriko egikaritze-proiektuaren aurkezpena. Bideragarritasun plana.
4. Eraikin berriko proiektua bazkideek onestea.
5. Bertaratutakoek euren iritziak agertzeko txanda.

*Bazkideek beste bazkide batzuk eskuordetu ahal izango dituzte euren izenean Aparteko Batzar Nagusira etorri eta bertan bozkatzeko. Ordezkaritza emoteko agiri estandarizatua bazkideen eskura dago.

Ikasteko arazoak konpontzen

Hire Ondoan zentro pedagogikoak hogeit hamar urte daroatza eskola-umeen ikasteko zailtasunak atzematen, aztertzen eta horiei konponbidea bilatzen. Sendiakaz lan egiten dute.

Gaur egungo umeek lehengoek baino arazo edo zailtasun handiagoak dauzkatela entzuten da maiz. Hire Ondoan ikastetxean ez dute horrela ikusten: daukaten garrantzia ematen diete arazo horiei. Eskolako erritmoa jarraitzen ez duen umeak sufritu egiten du eta, ondorioz, helduengan kezka sorrazten du, normala denez. Hire Ondoan zentro pedagogikoan egiten duten lanak horregaz dauka lotura; ikasteko zailtasunak atzeman, aztertu eta konponbidea bilatzen dute, eskolan edo etxean. Familiagaz batera egiten duten orientazio-lana funtsezkoa da, gurasoek ulertzeko zer gertatzen den eta ikastetxeak zer egin dezakeen. Aldi berean, bertako profesionalakaz harremanetan egoteak ere garrantzi handia dauka, jarraipen egokia ziurtatzeko. Aurten hogeit hamar urte beteko dira pedagogia-lana abiarazi zutenetik; denbora luze horretan ume eta guraso askogaz lan egin dute. Esperientzia desberdinak eta askotariko ikasteko moduak topatu dituzte bidean. Modu berean, ikasleei laguntzeko mekanismo eta estrategia egokiak martxan ipini dituzte. Ikasteko zailtasunak aipatzen dituztenean zertaz berba egiten dabilzan galdetzen diete. Denok ulertzeko, «eskolako erritmoa jarraitzeko kapaz ez izatea da». Arazo horiek denak tratamendu zuzen-



Daukaten garrantzia ematen diete umeen arazoei Hire Ondoan zentro pedagogikoan.

Umearen ongizatea lortzeko, beharrezkoa da guraso eta irakasleak elkarlanean jardutea

na daukate ikastegian: hainbat metodologia, estrategia eta ikas-teknika erabiltzen dute, ikasleen motibazioa eta ikasketa egokia ziurtatzeko. Aldi berean, lehen aipatu legez, garrantzi handia dauka tratamenduan, gurasoakaz eta ikastetxeagaz orientazioa lantzeko eta haiei gomendioak emateak. Umearen ongizatea da helburua. Denok izan behar dugu argi.

AURREMATRIKULAZIOA | Aurretik jakin beharrekoak

Mundua eskuratzeko pausoak

Daborduko zabalik dago Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn izena emateko kanpaina. «Handitzen, handitzen... mundua eskura izateko» da goiburua.

Hezkuntza Sailak eta ikastetxe publikoek eta kontzertatuek abiarazi dute 2018-2019 ikasturterako aurretiko matrikulazio-aldia. Gurasoek eta tutoreek otsailaren 9ra arte edukiko dute epea umeak eta nerabeak inskribatzeko; izapide-sistema bera aplikatuko da Haur Hezkuntzan (bi urtetik aurrera), Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

Sendiek aukeran edukiko dute aurretiko matrikula gurago duten ikastetxean edo Internet bidez egitea, Hezkuntza.net webgunean. Bigarren bide hori aukeratuko dutenek ez dute beharrezko izango, honenbestez, eskatutako dokumentazioa hautatutako ikastetxera eroatea. Pauso hori on-line egin beharko dute, eta dokumentuak eskaneatuta bidali. Aurrematrikula sarean egiteko azken eguna otsailaren 8a izango da, ikastetxeetan baino egun bat lehenago.

Neska-mutilak D ereduera eroan gura izanez gero, Uribe Kostako 32 ikastetxetan dago horretarako aukera. B ereduak hobetsiz gero, hamaseik eskaintzen dute modelo hori. Azkenik, desagertze bidean dagoen A ereduak bederatzi eskolatan irauten du, eta X modeloak bakar batean. D ereduak, euskara da irakas-hizkuntza, ikasgai bitan izan ezik; B ereduak ikasgai batzuk ematen dira gaztelaniaz eta beste batzuk euskaraz; A ereduak gaztelaniaz da gehienbat; eta X, ingelesez.

Egutegia

Otsailak 8: Epemuga hezkuntza.net webgunean.
Otsailak 9: Epemuga ikastetxeetan.
Otsailak 20: Eskatzaileen zerrenda argitaratuko dute.
Martxoak 1: Behin-behineko zerrendak argitaratuko dituzte.
Martxoak 14: Erreklamazioak aurkeztu eta eskabideei uko egiteko epemuga.
Martxoak 22: behin betiko zerrendak argitaratuko dituzte.
Apirilak 11: Bigarren eta hirugarren aukeren zerrendak argitaratuko dituzte.
Apirilak 23: Behin betiko zerrendei gora jotzeko errekursoak ipintzeko epemuga.

Baremazio-puntuetan hainbat aldaketa egin ditu Jaurlaritzak

Aurtengo aurrematrikulazioan, lehen bezala baloratuko dira desgaitasunak, familia ugaria, bizilekuaren hurbiltasuna eta neba-arrebaren bat edukitzea ikastetxean. Halere, Jaurlaritzak aldaketak egin ditu baremorako ematen den puntuazioan, irizpide batzuk aldatuz eta beste berri batzuk sortuz:

Sendiaren errenta: irizpide horrek gehienez 1,5 puntu emango ditu, eta ez hiru, aurretik zen moduan.

Familia-harrera kasuetan: berria da irizpidea; puntu bat eman dezake ikaslearen familia-harrerako egoerak.

Kooperatibista izatea: bazkide kooperatibista izatearen abantaila jaitzi da, puntu batetik puntu erdira; Eskola Kontseiluak ipinitako beste egoera batzuen eragina ere erdira jaitzi da, puntu bitik batera.

Bizilekua EAEn: puntu erdi emango zaie EAEko umei, ikastetxearen eragin-eremutik kanpo bizi badira.

SANTÍSIMA TRINIDAD

Algortako etorbidea, 108. ALGORTA • 944 911 085 • colstmat01@yahoo.es • trinitariasecretaria@yahoo.es • Trinitariasalgorta.net/admisión

Printzipio handiak oinarri, ikasleak pertsona gisa hazteko



DBHko ikasleek 08:25ean hasten dute eguna; Haur Hezkuntzakoek eta Lehen Hezkuntzakoek, ordu erdi geroago.

Santísima Trinidad ikastetxeak tradizio handia dauka Algortan eta inguruetan. Eskolak arreta abegitsua eta familiarra eta lanerako prestasun handia eskaintzen ditu. Ardatza dute ikasleak garapen pertsonalean laguntzea.

Santísima Trinidad ikastegian garrantzi handia daukate printzipioek. Ikasleen garapen pertsonala bilatzen dute, adimen-, gizarte- eta espiritu-mailetan, ebanjelio-printzipio kristau eta trinitarioetatik. Trinitarioen hezkuntza-komunitatearentzat heziketa askapen-ekintza da, senidete-harremanak sortu eta gizartea hobetzen laguntzen duena.

Trinitariasek 16 urtera arteko honako hezkuntza-maila hauek eskaintzen ditu: Haur Hezkuntza (1-2 urteko eta 3-5 urteko zikloak), Lehen Hezkuntza (6 eta 12 urte bitartean) eta DBH (13-16). Haur Hezkuntzako bigarren zikloan proiektu hirueleduna abiarazi dute, ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz, eta urtez urte ipintzen dabiltza modu sistematiko eta mailakatuan. Bitartean, beste mailetan B hizkuntza-ereduan ikas daitezke.

Haur Hezkuntzan, umeak laguntzen dituzte euren garapen pertsonalaren oinarriak ipintzen. Honako hauek lantzen dituzte, besteak beste: autonomia garatzeko ohiturak eta errutinak sortzea; euren gorputza ezagutu eta kontrolatzea; olgetan jardutea, ikasketako oinarritzko tresna gisa; erlaxazioa eta isiltasuna lantzea, entzuten ikaslea arreta hazteko; zentzumen- eta motrizitate-eskarmentua batzea; euren gauzen ardura hartzea, hala nola norbera jantzi eta arropak erantzutea; ikaskideak elkarregaz bizitzea errespetuz; eta psikomotritzitatea. Lehen Hezkuntzan, garapen pertsonalaren oinarriak sustatzen segitzen dute, adimen-, gizarte- eta espiritu-mailetan, ikasleek

Sorrera

Ikastetxearen historia 1954ko urrian hasi zen; Ahizpa trinitarioen talde bat Algortara heldu zen eta eskola txiki bat zabaldu zuen, tren-geltokiaren ondoko txalek batean. Azaroaren 4an, trinitarioen lurralde-aitak bedeinkatu zituen eskolak.

Balioak

Hasieratik, balio nagusiak honakoak dira: pertsonetikiko eta naturarekiko errespetua, lana, erantzukizuna, senidetasuna, justizia, bakea, elkartasuna eta askatasun arduratsua.

aurrera egin dezaten DBHn, modu egokian eta zailtasun handi barik. DBHn, berriz, Batxilergoa prestatzen dute.

Besteak beste, honako kultur eta kirol-eskaintza osagarri hauek eskaintzen ditu Trinitariasek: ingeleseko eskaintza zabala, Trinity College-ren ziurtagiria ateratzeko edo Hizkuntza Eskola Ofizialaren titulura aurkezteko aukeragaz; hezkuntza-egonaldiak aterpeetan, txango ekologikoak eta ingurumen-heziketa euskaraz; herriko jardueretan parte-hartzea, berbarako Agate Deunean, Inauterietan, Euskararen Egunean eta Bakearen Egunean; Andra Mariari lore-eskaintza; Gabonak eta Errege Magoak ospatzea; Gabon-kantzez sendiak zoriontzea; Agenda 21 programan parte hartzea; eta igeriketa.

Eskolaz kanpoko jardueri dagokienez, kirola ohiko osagaia da ikastetxearen bizitzan; futboleak, saskibaloia eta judoan jardun daitezke. Modu berean, kultur jardueri ere garrantzia ematen diete: aukeran dira dantza modernoa, zumba, gitarra, margoa eta euskarataillerrak.

Kalitate handiko instalazioak dauzka Trinitariasek. Ikasgela zabal eta argitsuez gainera, ikastetxe batek behar dituen gune denak dauzka: informatika-, teknologia-, pintura-, musika- eta ikus-entzuzko ikasgelak, liburutegia, kaperak, erabilpen askotariko estalpeko patio bi, zeru azpiko patio bat, gimnasioa, eta abar.

Horrez gainera, zentroak honako zerbitzu hauek eskaintzen dizkie ikasleei eta sendiei: idazkaritza, administrazioa, janlekua, orientazioa, mediku-zerbitzua, logopeda eta eskola-errefortzua.

Aurretiko matrikula egiteko, gurasoek eta tutoreek eskaerak eta inskripzio-orriak aurkez ditzakete zentroko idazkaritzan, otsailaren 9ra arte, edo Internetez, hilaren 8ra arte. Idazkaritza zabalik dago 08:45etik 14:00etara eta 14:45etik 16:00etara. Edozein zailtasun izaenez gero, lasai asko galde daitezke bertatik pasatuz, telefonoz edo posta elektronikoz; momentuan erantzun dute.

Leioan hezkuntza eraldatzen

Euskara eta euskal kultura ardatz edukita beti ere, etengabeko berrikuntzan eta hurbiltasunean oinarritzen da Betiko ikastolaren proiektu pedagogikoa.

Ikastolen ereduaren lau ezaugarri nagusiak ditu Betikok. Bate-tik, berezko hezkuntza eredua, ikasle bakoitzaren abiapuntuko profiletik abiatuta, marko pedagogiko propioarekin, euskal curriculumean eta konpetentzietan oinarrituta, integrazio-pedagogiaren bitartez eta euskara ardatz daukan eleaniztasunagaz. Izan ere, hori da bigarren ezaugarri nagusia: hezkuntza euskalduna. Betikon euskaraz bizi dira, eta euskaraz bizi gura dute herrian. Euskaraz munduratzeko dira eta euskaraz daroate mundua ikastolara.

Hirugarrenik, herritarra da proiektua. Hezkuntza zerbitzu publiko gisara ulerturik, herritarrengandik hurbil dagoen erakundetza du Betikok. Kooperatiba gara. Gurasoak dira haren kide, eta ikastetxeak gizarte-partaidetza eta erantzukizuna ditu ardatz. Ikastolen Elkarteak Europar kooperatibaren batzen dira, beste ikastola denakaz.

Proiektu eraldatzailea daukate, horra laugarren ezaugarria. Betikon etengabe dabilten eskaintza pedagogikoa berritzen, konfiantzaren pedagogiagaz, EKI ikasmaterial berritzaileagaz, eskola jazarpenari aurre egiteko KIVA proiektuagaz, teknologia eta eduki digital berriakaz, eskolaz kanpoko jarduerak ugarituz... Arkitektonikoki ere eraldatzen dira, esparruak berrituz eta irekiz euren proiektu peda-



0-16 adin tartekoa da Betikoren eskaintza.

San Inaziotik Berangora bitarteko autobus zerbitzua dauka Betikok

gogikoari egokitzeko. Besteak beste jantoki propio eta autogestionatua dute Betikon, eta bertan egiten dute elikadura prozesu osoa. Gainera, gurasoek aukera daukate ikastolara bisitak egiteko. Hamaika berrikuntzaren artean badago, halere, aldatzen ez den zerbait: euskararen eta euskal kulturaren mesedetan dihardute, betiko moduan.

Berrikuntzaren ildotik

Adimen mota denen garapena da Jado Ikastetxeko proiektu pedagogikoaren ardatz nagusia. Ikasleengan lan kooperatiboa sustatzeko prozesua ere martxan dago.

Jado Ikastetxeak erabat barneratuta dauka XXI. mendeko irakas-kuntzaren oinarria berrikuntza delako irizpidea. Gizarteak aldatuz doa eta, bilakaera geldiezin horren ondorioz, sortzen diren aldaketetara heziketa ere egokitu behar da, metodologia berriak garatuz eta baliabide teknologikoak berrituz. Ildo horretatik, ikastetxearen Hezkuntza Proiektua orekatua da arlo denetan eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHren beharrak kontuan hartuz diseinatu da. Proiektua adimen mota denen garapenean datza (logikoa, linguistikoa, gorputzarena, musikala, espaziala, naturalista, pertsonala eta pertsonen artekoa), eta estimulazio goiztiarra ere lantzen da, urte batetik aurrera.

Horrez gainera, ikasleen arteko lan kooperatiboa garatzeko prozesuan buru-belarri dabil Jado Ikastetxea, talde-lana oso eraginkorra baita ikasleen ezagutze-maila eta hainbat gaitasun garatze aldera. Ikasgelako jardueran teknologia berrien erabilera ere ohikoa da, eta proiektuen bidezko ikasketari ekin diote. Baina berrikuntzak ez dagozkio metodologiari bakarrik. Instalazioak ere etengabe berritzen dituzte; ikasturte honetan, hain zuzen, urte bateko eta biko gela berriak dituzte, baita ikasle txikienentzat psikomotritate gela ere.



Urte bateko eta biko ikasgela berriak ireki dituzte ikasturte honetan.

Besteak beste Korrika, Euskararen Eguna eta Kanpomartxoren antolakuntzan parte hartzen du Jadok

Hizkuntzari dagokionez, Jadok eleaniztasuna du helburu, D eredua abiapuntu izanda. Erandioko egoera soziolinguistikoa jabetuta, euskararen erabilera bultzatzea berebiziko garrantzia duelakoan dago ikastetxea; horrenbestez, euskal kultura eta euskararen aldeko ekimenen antolakuntzan esku hartzen du, Erandioko beste eragile euskaltzale batzuek batera.

Eleaniztasunaren institutua

Artatza-Romo BHI, A, B eta D ereduetan nerabeakaz eta gazteakaz lan egiten duen institutu publikoa da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eredu denak eskaintzen ditu; gaitelania hutsekoa 3. eta 4. mailan, bakarrik. Batxilergoan, aldiz, A eta D ereduak aukera daitezke, Giza eta Gizarte Zientziak, Zientziak eta Teknologia eta Arteak arloetarako. Ohiko eskolak emateaz gainera, askotariko eskaintzak ditu institutuak, berbarako elkartrukeak Frantziara, Alemaniara, Danimarkara eta Italiara; eta hizkuntzen ikastaroak (ingeleza, frantsesa eta alemana). Modu berean, hezkuntza berezarako arreta zerbitzuan eta unibertsitateko tailerretan parte hartzeko aukera ere badago bertan, baita orientazio eta psikologia zerbitzuetan ere.

Hornikuntzari dagokionez, ikasgela denak digitalizatuta daude, hau da, arbel interaktiboa, ordenagailua, audio-ekipoa, proiektorea eta Internetarako sarbidea dute denek. Horrez gainera, bost informatika-gela, musika-gela bi, batxiler artistikorako gela berezia eta askotariko laborategiak daude: fisikan, kimikan, geologian eta argazkigintzan trebatzekoak, alegia. Ikastetxeak hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie ikasleei: janlekuaz eta garraioaz gainera, gela itxia erabiltzeko aukera ere badago, baita psikologoaren zerbitzuak baliatzeko ere. Institutuak familia eta ikasle bakoitzari posta elektronikoa bana eskaintzen dio. Gaur egun, hamaika proiektu ditu esku artean ikastetxeak, berbarako Bidelaguna, IKT heldutasun ereduak, sare-hezkuntza, Agenda 21, PREE, jatorriko hiztun bat, hezkidetzak-elkarbizitza, elkartrukeak eta normalizazioa. Ikastetxean ikasten ari diren 12 eta 18 urte arteko neska-mutilek askotariko jarduerak osagarriez go-



Ohiko eskolez gainera, askotariko eskaintzak ditu institutuak.

Institutuko ikasgela denak teknologia berrietara egokituta daude

zatzeko aukera izaten dute. Hala, museoetara eta erakusketetara bisitak egiteaz gainera, ibilbide ekologikoetan ere parte hartzen dute, baita musika klasikoko kontzertuetara eta antzerkietara joan ere. Modu berean, urtean behin Areetan egin ohi den Getxo Arte egitasmoan jarduteko aukera ere edukitzen dute institutuko ikasleek, besteak beste.

Handitzeko eskola publikoa

Ikasketa kooperatiboa, integratzailea eta parte-hartzailea eskaintzen du Uribe Kosta BHIk, ikasleen banakako trebeziak eta gaitasunak bultzatzeko asmoz.

Nerabeakaz eta gazteakaz D ereduak lan egiten duen institutu publikoa da Uribe Kosta BHI. Plentzian dagoen ikastetxe horretan, eleantiztasuna eta sare-hezkuntza dira proiektuaren oinarriak. Ikasketa kooperatiboa, integratzailea eta parte-hartzailea eskaintzen du horrek, banakako trebeziak eta gaitasunak bultzatzeko eta indartzeko asmoz. Ohiko ikasgelez gainera, liburutegia, informatikako hiru gela eta chromebook gela bi dauzka. Modu berean, gimnasioa eta kirolean jarduteko patio estalia zein estaligabea dauzka. Zientzietan, kimikan eta biologian aritzeko hiru laborategi, musikan trebatzeko gela, eta janleku bi ere badauzka. Gaur egun, hamaika proiektu dituzte martxan ikastetxean, horien artean: Agenda 21, Nolega eta Bidelaguna. Eskola zerbitzu osagarriak ere eskaintzen dituzte, janlekuaz eta garraioaz aparte, berbarako orientazioa emateko ikasleei eta familiei, argazki eta lan-erakusketak eta Gurasoen Elkarteko psikologoaren laguntza eta inplikazioa.

12 eta 18 urte bitarteko neska-mutilek 08:20an hasten dituzte eskolak ikastetxean, astelehenetik barikura. Ohiko eskolak jaso ondoren, 15:10ean amaitzen dute eguna. Eskolaz kanpoko ordutegia,



Hamaika proiektu dituzte martxan ikastetxean.

Eleaniztasuna eta sare-hezkuntza dira ikastetxearen proiektuaren oinarriak

aldiz, 15:10etik 17:00etara artekoa da. Plentziako ikastetxe honetan matrikula egin gura dutenek, Hezkuntza Sailak proposatutako politika eta epea jarraitu beharko dute. Ondoren, izen-ematea online bidez edo ikastetxera bertaratuta egiteko aukera egongo da, betiere informazio-bulegoaren ordutegian: 09:00etatik 16:00etara.

Eskola familiarra eta euskalduna

Leioako Artatza auzoan dagoen ikastetxe publiko txikia da Artatza-Pinueta. Ikasleen, irakasleen, langileen eta gurasoen arteko harremanak oso estuak dira.

Artatza-Pinueta euskaragaz eta euskal kulturagaz konprometitutako lerro bakarreko ikastetxe familiarra da; Leioan dagoen D eredu eskola publiko eta euskalduna da, eta hezkuntza-komunitatearen sareko parte da 2004tik. Familien partaidetza bultzatzen du: eskolaren eta ikasleen aita-amen arteko harremanak sendotu gura ditu, eurak ikastetxeko komunitateko partaide sentitu daitezten. Urteetan egindako hainbat berrikuntza fisikoren eta metodologikoren ostean (tertulia literarioak, talde elkarreragileak...), Artatza-Pinueta ikastetxearen helburua da ikasleek gaitasun eta trebetasun emozionalak zein kognitiboak garatzen laguntzen dien prestakuntza eskaintzea. Gaur egungo gizartearen beharretan oinarrituta, eta haren aniztasuna kontuan hartuta, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak hobetu gura dituzte, giro egokia eta parte-hartzea bultzatuz. Ikastetxe-komunitateko kide denen arteko harreman onak mantentzeko, errespetua eta elkarriketa lantzen jarraitzen du Artatza-Pinueta ikastetxeak. Hezkuntza-proiektua baloreetan oinarritzen da, ondokoei lehentasuna emanez: elkarriketa, adostasuna, enpatia, elkarlana, errespetua. Eskola txikia izanda, ikasleek euren artean, irakasleakaz, familiakaz eta bes-



Ikasleei banakako arreta eskaintzeko aukera ematen du ikastetxe txikia izateak.

Baloreetan, errespetuan eta elkarriketan oinarritutako proiektua lantzen du ikastetxeak

te langileakaz dauzkaten harremanak sendoak eta estuak dira. Modu berean, ikasle bakoitzari atentzioa eskaintzeko aukera ematen du, denei behar duten arreta emanez, bai arlo akademikoan, bai arlo pertsonalean. Bestalde, inguru natural batean txertaturik, eskolatik bertatik dauden ikuspegiak Bizkaian dagoen paisaiarik ederrenetarikoa dira.

Erreferentzia izan guran

San Nikolas ikastolan hezkidetzatza ez da ikasgaia, gizartea ulertzeko modu bat da. Ikasleek modu integralean lantzen duten balore garrantzitsu bat da.

San Nikolas ikastola etengabe gaurkotzen den eta sistema pedagogikoa duen hezkuntza-proiektua da, egunero jardunean langileak, gurasoak eta ikasleak integratzen dituen. Ikastolak kalitateagaz eta garapenagaz konpromiso sendoak dauzka; irakasleen eta langileen formakuntzari eta berrikuntzari buruzko proiektuak etengabe sustatzen ditu. Hori horrela, hezkuntza, gizarte eta euskal kulturaren erreferentzia izatea da ikastolaren helburua. Horretarako, hezkuntza eta kudeaketa proiektu sendoa eskaintzen du, kalitatezko sistema batez, eta gaurko zein etorkizuneko gurasoen eta ikasleen beharrian eta nahiak asez. Hori dena, gizarte-eragile ugariaren inplikazio eta parte-hartzeagaz. Haur Hezkuntzako ikasleak, irakasleak eta gurasoak Konfiantzaren Pedagogia proiektuan daude murgilduta, denon artean gehiago ikasi, eta umeakaz hobeto jokatzeko familia-mintegiak eginez. Aurrean ere, Lehen Hezkuntzan oso ondo funtzionatzen duen bullyingaren aurkako KIVA proiektuagaz jarraitzen dugu. Bestalde, bizi dugun digitalizazio garaian, ikasleak IKTearen trebeak izatea da beste helburuetako bat; horregatik, DBH osoa EKI proiektu digitalean dago murgilduta. Euskara eta haren erabileraren sustapena errotuta



Algortako San Martin edo Hezetasuna auzoan dago San Nikolas ikastola.

Kirol-talde propioa dago eta kultur-jarduerak eta eskolaz kanpoko ekintzak egin daitezke

izan arren, proiektu eleaniztuna du ikastolak; ikasgaia ingelesez ere lantzen dira. Azkenik, ikastolak daukan orientazio-zerbitzua helburu nagusietako bat gizartearen zein ikastolan bertan aurkitzen dugun aniztasunari erantzun egokia ematea da. Horretarako, orientatzaileak, aholkulariak eta pedagogia terapeutikoan adituak dauzkagu.

Haize berriak heldu dira **hiruka**ra...

HARTU
BOLADA ONA
GUGAZ...
EMAIOZU BULTZADA
ZURE
NEGOZIOARI!



Zure enpresaren edo negozioaren urte osoko publizitate-kanpaina jaso gura baduzu ipini zaitez gugaz harremanetan:

944 911 337 / 688 811 368 • publi@hiruka.eus

Agate Deuna koplak eta makila-kolpeak entzunbide



URIBE KOSTA | Usadio zaharrari eutsiz
Kale eta plazetara aterako dira Euskal Herri osoan ehunka emakume eta gizon, domeka honetan, otsailaren 4an. Eta Uribe Kosta ez da salbuespena izango. Asko izango dira baserritarrez jantzita eta egurrezko makila eskuan kantari ibiliko direnak. Ahots finak eta lirainak izango dira batzuk; ez hain gozoak besteak. Baina denak arituko dira lurra esnarazi guran, Agate Deunaren bezperan. Kontuak hala, lehiaketari edo hitzartutako dietari jarraituz abestuko dute hainbat herritan, barbarako Sopelan, Getxon eta Leioan. Gainerako herrietan abestaldeak euren kasa ibiliko dira kalez kale.

Antzerkia

Otsailak 4, domeka
Txanogorritxo rock
18:00 | Berango Antzokia | Berango
Umeentzako antzezlan. Euskaraz. Sarrera: 4 euro.

Batzarrak

Otsailak 2, barikua
Plentziako kultura agenda osatzeko batzar irekia
19:00 | Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Agorrijazz, Artekale eta musika klasiko jaialdien antolaketa parte hartzeko aukera eman gura diete herritarrei.

Berbaldiak

Otsailak 7, eguaztena
Uribe Kostako Irakurleen Txokoa
10:00 | Algortako kultur etxea | Getxo
Lutxo Egia idazle bilbotarra gonbidatu dute *Maraton: Athleticen historia ezberdin bat* liburua berba egiteko. Euskaraz. Sarrera, doan.

Dantza

Otsailak 3, zapatua
Dantza plazan
20:00 | Eskola plaza (Areeta) | Getxo
Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola dantza-taldeek parte hartuko dute.

Deialdiak

Otsailak 3, zapatua
36ko Gerrako eta Frankismoko biktimei omenaldia
13:00 | Galeako pasealekua | Getxo
Getxoko Udalak urtero egiten du ekitaldia; *Oroimenaren liburua* eskulturaren ondoan.

Erakusketak

Martxoaren 18ra arte
Sokatira
Rekalde Aretoa | Bilbo
Barriek 2018 egitasmoaren barruan. Puntadaz puntada, Marta Zelaia Aranbaltza artista urduliztarrak egindako tapiz handia ikusbide izango da. Sarrera, doan.

Ikastaroak

Otsailak 2, barikua
Txalaparta-tailerra
18:30 | Danontzat gaztetxea | Plentzia
Sarrera, doan.

Musika

Otsailak 2, barikua
Piano-entzunaldia
19:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Andres Isasi musika-eskolako piano-ikasleakaz. Sarrera, doan.

San Blas Eguna elizan eta nagusien egoitzetan ospatuko dute



BARRIKA | Jaieguna Meza eta hamaiketako egingo dira 11:00etan. Arrastian, Elorduyn eta Barrika Barrin ospatuko dute.

Zinema

Otsailak 1, eguena
Lurraren bidean dokumentala
19:00 | Kultur Leioa | Leioa
Bertaratzen diren denei dokumentalaren ale bana oparituko diete. Sarrera, doan.

Otsailaren 1etik 3ra arte
Sopela Surf Film Sessions
19:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Surfaren gaineko film laburren topaketa. Euskaraz eta gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Otsailak 3, zapatua
La Lego Ninjago pelikula
17:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

Aliados
19:00 | Berango Antzokia | Berango
Filma 12 urtetik gorakoentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

El caso Sloane
20:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

Otsailak 3 eta 4
Ferdinand animazio-filma
17:30 | Kultur Leioa | Leioa
Danontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

Otsailaren 3tik 5era arte
Una bolsa de canicas
20:00 | Kultur Leioa | Leioa
Filma 12 urtetik gorakoentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro (Ikasleen Eguna: 3,50 euro).

Otsailak 6, martitzena
The square
20:00 | Kultur Leioa | Leioa
Filma 12 urtetik gorakoentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

Otsailak 3, zapatua
Schubert konpositorearen lanak
19:30 | Areetako musika-eskola | Getxo
Neguko Bidaia zikloa. Olga Revuelta sopranoagaz batera, Anus Cividian eta Pía Rojas piano-joleek parte hartuko dute. Sarrera: 5 euro.

Euskarazko kantu zahar eta berriak kantaldia
21:00 | Etxebarri taberna | Sopela
Unai abeslariagaz. Sarrera, doan.

Otsailak 6, martitzena
Flauta-entzunaldia
18:30 | Areetako musika-eskola | Getxo
Musika-eskolako ikasleakaz. Sarrera, doan.

Otsailak 7, eguaztena
Biolontxelo-entzunaldia
19:30 | Areetako musika-eskola | Getxo
Musika-eskolako ikasleakaz. Sarrera, doan.

Erdu HIRUKA berritua ezagutzera!

Bat, bi... hiru! Bagatoz!

Komunikazio proiektu berrituari ondoetorria

Erdu hiruka berria ezagutzera...

Azearbarri Kultur Elkartea ALGORTA

Otsailak 1 19:00

ALGORTA | Urteurren-jaia
Komunikazio proiektu berrituan buru-belarri sartuta egon gara azken hilabeteetan, eta HIRUKA berria zuei ezagutarazteko asmoz, ondoetorria emango diogu, gaur, egunean, otsailaren 1ean. Hitzordua 19:00etan ipini dugu, Algortako Azearbarri kultur elkartearen. Denetarik egongo da: agurrak, ondoetorriak, jolasak, sorpresak... Denok gonbidatuta zaudete! *Hiruka* aldizkariak eta Hiruka.eus agerkari digitalak 2015eko urtarrilaren 22an ordezkatu zituzten *UK* eta *Ukberri*. net. Daborduko hiru urte bete ditu HIRUKA komunikazio-taldeak.

SARTU GURE WEB BERRIAN
www.cianoplan.es
902 103 763

kartelgintza

inprimategia

kopisteria

Arriskua itsasotik zetorren garaietako aztarnak

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Bizkaiko kostaldeari beldurra edo, gutxienez, zuhurtzia zerion, Erdi Aroa amaitu eta Francoren diktaduraren lehen urteak igaro bitartean. Kanoiak paratu zituzten, itsasotik etor zitezkeen kortsarioak, ingelesak, frankistak edo yankiak gerarazteko.

Gerra Zibilean eta Frankismoan egindakoak aparte utzita, Uribe Kostak Abrari eta Kantauri itsasoari begirako hamabi gotorleku eduki zituen, antzina, hainbat kanoiz armatuta. Gotorleku haietatik erdiak hondarren bat utzi du ikusgai. Alfredo Moraza Barea historialari eta Aranzadi zientzia-elkarteko kideak dokumentatu duenez, lehenengo kanoi-bateriak Algortan ipini zituzten, Usategin eta Arriluzen, biak 1639an. Hogeita Hamar Urteko Gerran gertatu zen hori, Frantzia gatazkan sartu zenean, Ingalaterraren alde eta Espainiaren aurka. Gatazka berean eraiki zituzten Plentziako Arrikuerretxoko gotorlekua eta Sopelako Meñakozkoa.

Espainiako Ondorengotza Gerrak (1700-1714) ekarri zuen Arminzako fortea eraikitzea eta Arriluzekoa zaharberritzea, baita gerora amaitu ziren Astondokoa, Muriolakoa eta Arriaterakoa hastea ere. Defentsa berriek ahalegin ekonomiko handia ekarri zuten, Aldundiak gonbidatu zituen herri horietako auzotarrak «boluntarioki» lan egin zezaten forte horien eraikuntzan. Trukean, egunero mokadu txiki bat

Barrika

- Muriolakoa fortea 1726 eta 1827 bitartean erabili zen.

Getxo

- Arrigunagako kanoiak 1796an ipini eta 1833ra arte erabili zituzten.
- Arriluzeko defentsak 1639an eraiki eta 1650ean itxi zituzten; 1898an berriro zabaldu zituzten, 1931ra arte.
- Galeako gotorlekua: 1742tik 1840ra.
- Galeako lurmuturreko defentsak 1742 eta 1809 artean jardun zuen. Gerora, 1940an, inguru horretan bunkerra zabaldu zuten.
- Usategiko defentsak garai bitan baliatu zituzten: 1639tik 1810era eta 1898 eta 1931 bitartean.

Gorliz

- Astondoko bateriak 1726 eta 1780 bitartean erabili zituzten.
- Azkorriaga: 1795etik 1833ra.
- Billano lurmuturrean 1940an eraiki zuten bunkerra.

Lemoiz

- Arminzako defentsak 1704an estreinatu eta 1836an itxi zituzten.

Plentzia

- Arrikuerretxoko kanoia 1643 eta 1836 bitartean erabili zuten.

Sopela

- Arriatera: 1726tik 1774ra.
- Meñakozen defentsak iraun zuten 1643 eta 1833 bitartean.

jasotzen zuten. Hurrengo eraikitze-uholdea Austriako Ondorengotza Gerragaz heldu zen. 1740tik 1748ra, itsas armada ingelesaren arriskua bizi zen. Hala, Jaime Sycre ingeniari militarri eskatu zioten Galeako gotorlekua eta Galeako lurmuturreko fortea diseinatu eta eraikitzea. Lana 1742an edo 1743an amaitu zuen.

Kostaldeko defentsak eraikitzea eta defendatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren eskuduntza zen. Hala, forteetako zaindariak ere Jaureriak izendatzen zituen, eta udalek artilleria-piezek mantendu behar zituzten. Neurri horren eraginkortasuna eskasa suertatu zen eta kresalak, denborak eta erabilpen okerrekin egoera kaskarrean utzi zituzten kanoiak eta gotorlekuak. Hala, Bilboko hiribilduak diru-kopuru handiak inbertitu eta Getxon eta Abraren inguruko beste udalerri batzuetan kanoi-bateriak eraiki eta mantendu zituen, bere portua babestuta egon zedin. Bestalde, artilleria-piezen higadura eragozteko, bake-garaietan ohiko bihurtu zen kanoiak beste biltegi batzuetan gordetzea. Elizak ere erabili ziren, Usategin legez. Bertako kanoiak San Nikolas elizako arkupeetan gordetzen zituzten. Horregatik, 1759an bateria konpondu zutenean gunea birbataiatu zuten, San Inazio izena ipintzeko. Hamarkada batzuk geroago, 1793an, isiotu zen Konbentzio Gerra. Horren eraginez altxatu zituzten Gorlizko Azko-riagako fortea eta Getxoko Arrigunagakoa.

Morazak nabarmendu duenez, defentsa-gune gehienak kota baxuetan eraikita zeuden, hondartzak edo moilak mendean hartu eta eraso-egilearen ontziei kalte handiak eragin ahal izateko. Hein handi batean, kokapen horiek «erabil zitezkeen kanoiaren mugengatik» ezarrita zeuden, kalibreak oso txikiak zirelako. 1796an, O'Farrell, Morla eta Samper jeneralek kritikatu egin zituzten kostaldeko kanoiaren ko-

kapena, baldintzak eta kalibreak. Euren ustean ez ziren «helbururako pieza-motarik egokienak». Handik aurrera, kalibre handiagoak ipini eta forteak leku garaiagoetan kokatu zituzten, Gorlizko Azko-riagan edo Getxoko Arrigunagan bezala. Ondoren etorriko ziren Ingalaterraren aurkako gerra eta Espainiako Independentzia Gerra. Azken horretan, «itsas-armada ingelesak eta bertoko gerrillariak eragin zuten kostaldeko kanoi-baterien defentsa-sistema erabat suntsitzea, tropa frantsesak xaxatzeko aitzakiaren pean», Morazak *Itsas memoria* aldizkarian jaso duenez. «Bateria gehienak kiskalita edo desmuntatuta geratu ziren, tresnak lapurtu zituzten, eta kanoiak erabilezin utzi edo itsasora bota zituzten», gaineratu du. Gerora, hainbat forte zaharberritu zituzten, baina 1840rako denak itxi zituzten, Usategi-koa izan ezik: 1931ra arte erabilgarri egon zen.

GERRA ZIBILA ETA FRANKISMOA. Altxamendu faxista gertatu ondoren, lehenengo Eusko Jaurlaritzak ere kostaldeko defentsak eraikitzeari ekin zion, Burdin Hesiaren barruan. Galeako defentsek parte-hartze garrantzitsua izan zuten Matxitxakoko batailan, *Canarias* guda-ontziaren aurka tiro egiten eta urruntzera behartzen, *Gipuzkoa* boua Portugaleten babes zedin. 1937ko ekainaren 15ean, Euzko Gudarosteak atzera egitean Galeako kanoi-bateriak lehertu zituen, frankisten esku ez geratzeko. 1940an, Estatu frankistak aurrea hartu gura izan zion ingelesaren edo estatubatuarren balizko eraso bati, Espainiak Alemania Sobiet Batasunaren aurka babestu ondoren. Hala, kostaldean zenbait kanoi eta bunker berriak eta ipini zituzten, presoak erabilita. Garrantzitsuenak Galeakoa eta Gorlizko Billano lurmuturrekoa izan ziren. Inoiz ez zuten tiro bat ere bota. ◀





«Bizkaian, 1987an, emakumeen futboleant 8 talde ziren»

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ARGAZKIAK: HODEI TORRES ►

Euskal futboleant titulu gehien lortu dituen entrenatzaileetako bat da Iñigo Juaristi (Berango, 1968); Athleticetako lehenengo taldeagaz lau Superliga lortu zituen, besteak beste. Hiru urtez entrenatu barik jardun ostean, euskal selekzioaren ardura hartu zuen partidu baterako, joan den azaroan.

**Zelan ikusi zenuen euskal selekzioa Ipuruan, Txekia-
ren aurkako partidant?** Ondo, alde bietatik ikusita. Kirol-arloan polita izan zen, Txekia arerio indartsua delako: Munduko Txapelketan sailkatzeko lehiatzen dabilen selekzio bat da. Garrantzitsua da horrelako konbinatu baten parean lehiatzea. Konturatu ginen haiekaz lehiatzeko nor bagarela; azkenean, irabazi genuen, baina beste edozein emaitza gerta zitekeen. Orain badakigu maila horretan gaudela, lehiakorrak garela eta hori ederra da. Beste aldetik, polita izan zen ere partiduak ekarri zuena, Ipuruan jokatzeta eta ikusten egon zen jendeta. Zoritzarrez, gure selekzioa ez da ofiziala, ezin du parte hartu lehiaketa ofizialeant. Hortaz, partida lagunartekoa zen

Irunbat
galp energia

Martitzen
eta zapatuetan
ESKAINZA
BEREZIA

Loiola Ander Deuna, 74 · 946 764 625 · www.irunbat.net

aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

Aldai

eta horrek zaildu zuen jende gehiago erakartzea. Gainera, ez dugu ahaztu behar emakumezkoen futbola dela, ez daukala gizonezkoen futbolarik daukan lilura. Izan ere, gizonezkoen futbolarik bereganatzen du ia dena; gizonezkoen futbola izan ezik, beste kirol denetan bizirauten dugu ahal dugun moduan.

Pozik zaude euskal selekzioaren partiduagaz? Bai, bai. Esperimentzia polita izan zen. Selekzioak gaititu zuen, eta nota onagaz, gainera. Aldarrikatu zen euskal selekzioak lehiaketa ofizialetan parte hartu ahal izan dezan, eta gainera egiaztatu zen hori lortzekotan sasoiaren dagoela Europako selekzio indartsuenakaz parez pare lehiatzeko.

Zer deritzozu Naiara Beristainen eta Damaris Egurrolaren lanari? Naiarak partidu osoa jokatu zuen, eta aukera izan zuen minuturik onenak gozatzeko. Biek ekarpen oso handia egin zioten partiduari. Damarisi gehiago egokitu zitzaion zelaiaren gune askotatik pasatzea, aldatetengatik egin genituen barietateengatik, baina oso ondo ibili zen.

Uribe Kostako beste izar bat da Garazi Murua. Zelan ikusten duzu bere ibilbidea Athleticen? Deialdian zegoen, baina ezin izan zen etorri, sukarragaz zebilelako. Pena izan zen, merezi duelako. Damaris eta Garazi Athleticen izan nituen, han entrenatzaile nintzenean. Azken urteotan izan duten eboluzioa oso handia da. Biak egon ziren nigaz Athleticen B taldean; eta orain lehenengo taldeko titular ukaezin ikusten ditudanean, balio dutena erakusten, harrotasun apur bat sentitzen dut. Badakit parte hartu dudala futbolarik gisa izan duten eboluzioa eta hazkunde horretan. Izugarri poztu naiz hor daudelako eta hazten segitzen dutelako.

Zelan heldu zitzaizun berriro entrenatzeko aukera? Zuzenean, euskal federazioaren presidentek deitu egin ninduen. Proposamena egin zidan, azaroan partida izango zela eta ea euskal selekzioaren hautatzailea izatea interesatzen zitzaidan.

Zenbat denbora izan zenuen norgehiagoka antolatzen? Hilabete eta erdi izan nuen arerioaren partiduak lokalizatu eta ikusteko. Jokalarien aukeraketa ez zen hain zaila izan; berez egin nuen jokalarien segimendua, emakumezkoen futbola gusatzatzen zait eta ezagutzen ditut. Konplexutasun handiagoa izan zuen jokoa ikustea. Izan ere, egun bakarra izan nuen haiekaz egoteko eta entrenatzeko, partiduaren aurretik. Ahalegindu ginen jokatzeko euren klubetan ohituta daudenaren antzera eta lau jarraibide besterik ez nizekien eman. Hor lan handia egin genuen: Txekiaren sei partidu genituen eta zazpi edo zortzi minutuko bideo batean laburtu genituen. Saiatu ginen asmatzen zer zen haiek arerioaz ikusi behar zutena.

Pozik gelditu zara egindako beharraz? Bai, lan oso zorrotza egin genuen, eta maitasun handiz, gainera. Asmoa zen pres-



«Euskal selekzioagaz dudaren harremana ez da amaitu, baina ez dugu gehiago berba egin. Momentuz ez da beste ezer jokatu, epe laburrean»

taketara heltzea behar genuen informazioagaz, ondo lehiatu ahal izateko. Jokalariak jakin zezaten gure ustean jakin behar zutena. Guk askoz informazio gehiago geneukan, jokalarien zerrenda eta taktika-marrazkia argiago planteatu ahal izateko, baina ahaztu barik futbola xake-partida bat bezalakoa dela: ez dago formula zehatz bat asmatzeko. Askotan asmatzen da, baina beste batzuetan lehia hasi eta bost minutura buruan hatz egiten hasia tokatu zait, «uste dut ederra egin dudala» pentsatuta. Txekiaren egunean, ondo ateratu zen.

Hainbat urte zeneraman entrenatu barik. Badira hamar urte lehenengo taldea entrenatu barik, baina uztailaren hiru urte bete dira Athletic utzi nuenetik. Garai hartan, emakumezkoen taldeetako koordinatzailea izateaz gainera, bigarren taldea entrenatzen nengibilen. Hala, buelta ez da hainbestekoa izan, nahiko mekanizatuta daukat dena. Astez astezko dinamika izan balitz, agian erritmoa hartu beharko nuen, baina hautatzaile-rola betetzeko ondo baliatu dut daukadan mekanika.

Zure harremana euskal selekzioagaz amaitu da? Nik dakidala, ez da amaitu. Baina ez dugu gehiago berba egin. Partida hori jokatzeko aukera egon zen eta beste bat egonez gero, jakinaraziko digute. Momentuz ez da jokatu ezer, epe laburrean.

Zu prest zeundeke? Momentuz, bertan nago. Ez daukat beste proiekturik epe laburrean, egongo ez naizela pentsatzeko.

Bizkerren 1987an hasi zinenetik, zelan ikusi duzu emakumezkoen futbolarik izan duen bilakaera? Izugarria izan da. Ni sartu nintzenean, gogoan daukat, Faturako klub batera heldu nintzen, eta ahal zuten lekuan entrenatzen zuten, batzuetan, Faturako lorategietan. Baldintza horietan ziren entrenamenduak. Taldera egun batzuetan 10 jokalarik agertzen ziren, beste batzuetan 12, ez zegoen lan-dinamika egiteko aukerarik, egunez egun 18 edo 20 jokalariaz. Dinamika jokalarien ikasketen eta lanaren arabera zen. Zaila zen. Lehiaketa bakarra zen Bizkaian, zortzi talde seniorrek jokatzeko zutena. Ez zegoen emakumezkoen futbol-talde gehiagorik herrialdean. Ez zegoen gazte-mailarik, kadeterik, haurrik... Gaur egun emakumezkoen futboleko Bizkaian dagoen egitura sortzeke zegoen. Orain, oster, jokalarik profesionalak daude, Athleticen legez, eta hainbat talde bigarren mailan eta lurralde-, gazte-, kadete-, ume- eta kimu-kategorietan. Bizkaiko hainbat klub garrantzitsuk dute eskola-egitura, Bizkerrek legez; entrenatzen duten instalazioek ez dute zerikusirik antzinakoak; emakume pilotari dago entrenamenduetan; baliabideak dituzte; teknikariak prestatuta eta kualifikatuta daude... Dena aldatu da.

Zelan dator etorkizuna? Emakumezkoen futbolarik alde apustu egitea apustu zuzena da. Arlo osoa hazten dabil: gero eta jarraipen handiagoa egiten zaio, jokalariek gero eta baldintza hobekiago dituzte eta espero dut dinamika horretan segitzea. ◀

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

GARAIZAR

BARRIKUNTZAK

Illeta, 1 · 48991 ALGORTA
944 305 243 · 607 952 977
regaraizar@gmail.com · www.garaizar.biz

OSABIDE
Hortz-Klinika

Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, beheko eskuina · ALGORTA

944 307 696

GETXO | Gaztelekuko langilearen kaleratzea

Erantzukizuna eskatu dio LABek Getxoko Udalari

Algortako Gaztelekua kudeatzen duen Aisibizia Elkarteak langile bat kaleratu zuen joan den abenduan, LAB sindikatuak jakinarazi duenez. «Ekintza horren bidez, eta beste aitzakia ezberdinak erabiliz, langileen antolaketarako edozein aukera eraitsi nahi dute», deitoratu du sindikatuak. Aisibizia Elkarteak Getxoko Udalarentzat lanean ari da eta bertako gazteei zuzendutako zerbitzu bat eramaten du. Hori dela eta, erantzukizuna eskatu diote Getxoko Udalari.



GETXO | Itzubaltzetako BOEak

Romo Plataformak BOEtzat jotako 75 etxebizitzak gaur egun libreak direla esan du Udalak, hasiera batean BOE kalifikazioa eman bazitzairen ere.

GETXO | Imanol Landari erreleboa



Amaia Agirre zinegotzia izango da EAJren alkategaia 2019ko hauteskundeetan.

ERANDIO | Atxiloketa

Ertzaintzak gazte bat atxilotu zuen urtarilaren 27an kristalezko edalontzi batez beste mutil bati eraso egin eta ebaki sakon bat egin ziolakoan.

PLENTZIA | Jai-Alai frontoia, ilegala

Pilotalekuaren irregulartasun-egoera legalizatzeari ekin dio Udalak; aspaldiko eraikuntza baimentzeko eskatu diote Itsasertz Mugarteari.

GETXO | Ibarbengoako obrak gelditzen saiatzeagatik, auzia

Sententziaren zain gelditu dira auzipetutako Tosuko hiru lagunak

Joan den urtarilaren 26an Getxon epaitu zituzten hiru ekintzaileek argi dute, «balizko kalteengatik baino, protestak zigortu gura izan dituzte». Dozenaka lagunek babesa adierazi zieten.



LEMOIZ | Hirigintza

Kiroldegia zabaldu dute berriro, teilatua berritu ondoren

Instalazioak hainbat astez itxita egon ondoren, berriro zabaldu dute kiroldegia. Teilatua berritu dute eta 80.000 euroko aurrekontua izan dute horretarako. Orain, harpidedunei diruaren zati proportzionala itzuliko diete.



GETXOKO EH BILDU | Aurrekontu parte-hartzaileen udal-prozesua

«Proiektuak nahiko orokorrak eta generikoak dira, eta herritarrei ez zaie inolako zehaztasunik ematen»



GABI DE LA MAZA | Interneten egindako lan onenaren Argia Saria

«Youtube hasi aurretik ere abestiak 'karaokeatzen' nituen, 2008tik aurrera hasi nintzen hara igotzen»

277 iradokizun

Berangoko auzokideek euren ekarpenak egin ahal izan dituzte 2018ko udal-aurrekontuetarako. Prozesu parte-hartzailea egin dute horiek denak jasotzeko.

8 proiektu

Urte honetako aurrekontu parte-hartzaileen bigarren faseari ekin dio Getxoko Udalak. Hala, onartutako zortzi proiektuak baloratu ahalko dira, otsailaren 11ra arte.

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a - 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena
Argazkiak: Hodei Torres
Testuen orrazketa: Jon Gastelurrutia
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKAlagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

Kultur Leioari esker, Linbo planeta ikuskizunaz gozatzeko 3 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu

Otsailaren 11ko umeentzako ikuskizunaz gozatzeko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, otsailaren 5a (astelehena) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



Otsaileko saria



Masaje lasaigarria, Erandioko Bare Zentroaren ekimenez

Bare Zentroaren ekimenez, sari hori zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide denen artean.

Zozketan parte hartzeko, bidali otsailaren 28a (eguztana) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

		5		3		8	
					8	4	6
			5				9
6	1						8
			9	6			
3				2			
	9						3
			8	9		7	4
1	2		7				

7	3						
		5		3			6
			8				4
					9		2
	9	1			8		
5	4		7				
					1	4	
		4	2	5			3
	1				6		5

Soluzioak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

5	6	2	9	8	4	7	1	3
8	3	1	7	5	2	4	9	6
9	7	4	1	6	3	2	5	8
6	1	9	3	2	7	8	4	5
7	5	3	8	4	9	1	6	2
4	2	8	6	1	5	3	7	9
3	4	6	5	7	8	9	2	1
1	9	7	2	3	6	5	4	8
2	8	5	4	9	1	6	3	7

5	6	9	3	4	7	8	2	1
2	4	7	1	6	8	9	5	3
3	1	8	5	2	9	7	6	4
4	9	5	2	8	1	6	3	7
1	2	3	7	9	6	4	8	5
8	7	6	4	5	3	1	9	2
6	3	1	9	7	5	2	4	8
9	5	4	8	1	2	3	7	6
7	2	8	6	3	4	5	1	9

Hitza emanda

Makila

Domeka iluntzean,
hilak lau hain zuzen,
kalez kale ibiliko
gara lurra astintzen.
Makila hartuta herria
iraultzen goazen,
kataluniarrak lez
itzartu gaitezen!




JOSU LANDETA EGURROLA
Getxo



Mundukatuak **Cork**

«Zuzeneko folk-musikaz goza daiteke tabernetan»


Ekaitz Bravo de Medina
Nongoa
Algortakoa.

Adina
29 urte.

Zertan dabil
Lanean eta ingelesa ikasten.

Ikasketak
Lehen Hezkuntzako gradua.

Noiz heldu zinen?
2017ko azaroan.

Noiz arte bertan?
Printzipioz, urtebete.

Lurraldea
Irlandako Errepublika.

Azalera
70.273 km².

Hiria
Cork.

Biztanleria
125.622 (2016).

Hizkuntzak
Irlandako gaelikoa, jatorrizko zelta eta ingelesa dira bertako hizkuntza ofizialak; konstituzionalki azken hori bigarren hizkuntza da. Gaelikoa ikastea nahitaezkoa da, baina ingelesa da gehien erabiltzen dena. Ulster-ko eskoziera ere erabiltzen da Ulster-en, Ipar Irlandan eta Irlandako Errepublikan. Shelta ere darabilte ijitoek.

Moneta
Euroa.

Ikasketak amaitu ondoren, bere lanbidean aritzeko ingelesa menderatzea ia-ia beharrezkoa zela argi zuen Ekaitz Bravo de Medina algortarrak. Hori dela eta, hemen ezer aurkitzen ez zuenez, urtebete atzerrian ematea erabaki zuen iaz. Hasi batean Eskoziara joan gura zuen, baina hango alokairu garestiek eta *Brexit*ak eragindako egoerak aukera hori baztertzea eragin zioten. Bigarren aukera Irlanda zuen, baina argi zuen ez zuela Dublinera joan gura. Hala, herrialdeko bigarren hiri nagusia joatea erabaki zuen, Corkera. Hara heldu eta gutxira, lantegi batean lana topatu zuen. Hala ere, behar berri baten bila ari dela aitortzen du, ordutegi finko bat izateko eta, modu horretan, ingeles-akademia batean sartu ahal izateko, «azken finean, hizkuntza hori ikastera etorri naiz hona».

Normalean eguraldiak laguntzen ez duen arren, Cork hirian badago zer egin. Bertako erdigunean murgiltzea aukera ona dela azaltzen du algortarrak, tabernaz beteta dago eta horietako askotan folk kontzerturen bat edo beste entzun daiteke egunero, baita kalean ere. Horrez gainera, English Market azoka, Fitzgerald par-

kea eta kartzela bisitatzea gomendatzen du, besteak beste. Modu berean, konderrian askotariko gazteluak eta beste hainbat gauza interesgarri bisita daitezke, barbarako Cobh herria, «*Titanic* ontziak azken geldialdia egin zuen herria». Kirol gaelikoek ere garrantzi handia dute inguru horretan, «zaletasun handia dago». Esaterako aurreko zapatuan futbol gaelikoa eta *hurling* izeneko kirol bat ikustera joan zen, eta zelaia «leporaino» zegoela azaldu du, «10.000 pertsona batu ziren bertan».

Janariari dagokionez, denetarik topa daiteke Irlandan. Hala ere, *Irish breakfast* delakoa nabarmendu du algortarrak: «Hirugiharra, saltxitxak, budina, indabak, arrautza frijituak eta patatak, den-dena batera gosaltzen dute». Edateko, aldiz, tea, sagardoa (*cider*) eta, nola ez, garagardoa dira gehien kontsumitzen diren edariak inguru horietan.

Irlanda oso herri katolikoa dela azaldu du gazteak; hori dela eta, Corken hamaika eliza aurki daitezke. Kalean bizi den jende kopuru handia ere harritzekoa dela dio; «gainera, horiek Gobernutik diru-laguntza bat jasotzen dute hilero». ◀